

|||uztarria|||

|||Azpeitiko herri aldizkaria |||2017ko ekaina |||195. zenbakia |||*hrr* |||



HERRIAK SARETZEN

Azken 30 urteotan hainbat herritar izan dira Askapenaren brigadetan, munduko txoko desberdinetan 20

"Badakit
beti alboan
izango
dudala"

Mercedes
SPAINIA ETA ETX.
GAES-DIO BEREKON



Silvia

1980ko urteetako 1980ko urteetako
ANTZAKOZKOEN ALDE BERRIKOZKOEN

ENTZUMENA
DOAN
aztertuko dizugu

JEREZ
CALLE MURCIA, 20
46100 BURJASSOT
www.jerez.es

www.gaes.es

Foruen Ibilbidea, 8
Tel.: 943 15 03 95
azpeitia@gaes.es
AZPEITIA



GAES
Entzumen Zentroak

MILAR LARRAMENDI

Larra^{III}endi
Sukalde Gunea



Smart Retail
sistema berria



AZKOITIA Xabier Munibe, 11 / Julio Urkijo, 16
Tel. 943 85 18 97 www.milarlarramendi.com



Astelehenetik ostiralera:
9:30 - 13:00 16:30 - 20:00
Larunbata: 9:30 - 13:00



Azkar ibili!

Azpeitian azken txanpan sartzen baikara!

Euskal Tonbolarekin,
euskarari behar duen energia eman!

EUSKAL
TONBOLA
ENERGIA MUGIMENDUAN

uztarria

Argitaratzailea. Uztarria

Komunikazio Taldea. Azpeitia

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@uztarria.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 1xx.a (2017ko hilabetea)

Urtea. XVIII.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Diseinua. Eregi Komunikazio eta

Euskara Zerbitzuak

Publizitatea. 685780412 /

uztarria@uztarria.com

Bazkidetza. 943 15 03 58

Tirada. 2.500 ale hilero

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. Maialen Etxaniz

Webgunea.

www.uztarria.eus

Uztarria herri aldizkariaren

laguntzaileak (erakunde publikoak)



Uztarriak
Bai Euskarari



Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza
Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz
lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen
aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

2017KO EKAINEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Ba al duzu
lizar adarra etxean
jartzeko ohiturarik? **13**

mamia

Elkarrizketa. Iker
Bueno Sammic ISBren
entrenatzailearekin
hizketan, taldea mailaz
igo eta gero **04**

Klik! Leire Larrañaga
irudi bilduma berezia
ari da osatzen **16**

Idazteko bekak. Miren
Gorrotxategik eta
Miren Garatek liburu
bana idatzi dute beka
banari esker **24**

jakiteko

Bestaldetik. Urtzi
Oteiza 'Kaito' kamera
itzalita mintzo da **34**

Ba al dakizu Beñat Lizasok Euskal
Herriko Bertsolari txapelketan parte
hartuko duela? **Uztarria**


Izan uztarriaren bazkide

t 943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak
ere eskuratuko dituzu.** Uztarria Komunikazio Taldeak
orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1** eta **biografia**
txikiak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide
gara Uztarria Komunikazio
Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro
dira urtean.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia,
Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

IKER BUENO

saskibaloia entrenatzailea

“une onean nago, eta jarrai dezaket”

ISBko gizonen lehen taldea gidatzen aritu da Bueno azken urteotan. Espainiako Urrezko LEB Mailara igota, ez daki taldean segituko duen. 📝👁️ Julene Frantzesena

K iroldegian denbora asko pasatu duela eta, Loiolan jarri du elkarrizketarako hitzordua Iker Buenok. Izarraizpean bizi den arren, “loiolatarra” deitu izan diotela dio barre artean. Loiolako basilikaren eskaileretan, bisitarien artean baina etxetik gertu, egin du Sammic ISBekin bizi izan duen denboraldi gogoangarriaren eta saskibaloia ibilbidearen errepasoa, patxadaz. Denboraldia hasterako zituzten sentipenak ahaztu gabe, denboraldia bukatzean egindako lanaz honako balorazioa egiten du Buenok: “Uste dut hamarretik hamaika bat merezi duela taldeak”. **Denboraldia bukatzean, Urrezko LEB Mailara igota, “laino batean bezala” zeun-**

dela esan zenuen. Jaitsi al zara laino horretatik?

Berehala jaitsi nintzen. Astebete edo bi aste pasatzean, gauzak normaldu egiten dira. Lehen egunetan hedabideetatik deitzen dizute, eskerrak ematen ere bai instituzioetatik, eta burbuila moduko batean sentitzen zara. Izan ere, ez duzu pentsatzen zenbaterainoko oihartzuna izan dezakeen lortutakoak. Baina lanean ere ari naiz, eta ez dut denbora gehiegi izan laino horretan segitzeko.

Ospakizunetarako eta atsedeen hartzeko tartea hartuko zenuen, ezta?

Denboraldia bukatzeko partida baten faltan igo ginen mailaz. Azken partida etxean jokatu behar genuen, eta aste horretan

|||DATUAK||||||||||||||

|||Jaio. 1988ko uztailaren 5a.

|||Herria. Azpeitia. |||Lanbidea. Irakaslea.

normaltasunez entrenatu ginen. Azken partida jokatu eta gero, atzerriko jokalaria beren etxeetara itzuli ziren, eta hemen goek beren bidetik segitu dute. Ez dugu entrenamendurik egin harrezkero. Deskonektatzeko unea da hau; izan ere, zazpi hilabete pasatu ditugu egunero-egunero elkarren aurpegiak ikusten. Eta bai, parrandaren bat egin ginen taldeko kide guztiok.

Mailaz igo zarete, baina igoera gauzatzeko aukerarik izango al duzue?

Badut esperantza, ez baita izan egun batetik bestera hamar jokalaria berri ekarri eta mailaz igo ga-

rela. Pixkanaka-pixkanaka eman ditugu pausoak, astakeriarik ez dugu egin klubaren ekonomiari dagokionez, eta uste dut hori garrantzitsua dela maila igoera gauzatzeko. Argi dago aldundiaren eta udalaren laguntzarik jasotzen ez badugu eta babeslerik lortzen ez badugu, ia ezinezkoa izango dela. Uste dut, orain arteko filoso-fiari eutsita, urtebeteko saiakera egitea badagoela. Izan ere, kontua ez da zortzi jokalaria fitxatu, dirua gastatu, eta ezertarako balio ez duela ikustea. Etxeko jendea heldu behar diogu, eta horiei aukera eman maila berrian jokatzeke.

Zer garrantzia dute etxeko jokalariek?

Garrantzitsuak dira oso, bi gauza-



gatik. Batetik, epe ertain edo luzerako proiektua nahi bada, etxeko jendearekin osatu behar delako taldea. Ezin da hamabi jokalaria fitxatu eta denboraldi talde berria egiten aritu. Baskoniak horrela funtzionatzen du, baina utopia bat da. Herri bateko klub baten oinarrian egon behar du bertako jendeari aukera emateak. Gu Urrezko LEBera iritsi gara orain, baina egunen batean ACBra iritsiko bagina ere, filosofia horrekin heltzea nahiko nuke. Bestalde, Gipuzkoan zaleoi kostatu egiten zaigu talde batekin identifikatzea. Parte sentitze horretan, pisu handia du etxeko jendeak. Beraz, Gipuzkoako taldeei, diren mailakoa izanda ere, ez diet etorkizunik ikusten ez badute etxeko jokalarien aldeko apusturik egiten. Afizioa sortzeko, gertutasuna eman behar zaio jendeari.

Entrenatzaile lanetan segituko duzu?

Ez dakigu ez nik eta ez klubak. La-

nean ere ari naiz, eta mailaz igozteak beste eskakizun batzuk ditu. Espainiako bigarren liga da, eta ia entrenatzaile guztiak profesionalak dira. Lehenik ikusi behar da zer baldintza bete behar diren maila horretan entrenatzaile izateko, eta, gero, nik baldintza horiek betetzen ditudan edo ez.

Jokalaria izandakoa zara...

Saiatu nintzen jokalaria izaten, bai (kar, kar, kar). Denei gauza bera azaltzen diet: jokalaria nintzen, baina txarretakoa, eta gustura ibiltzen banintzen ere, ez nintzen nabarmentzen. Pixkanaka, beste gauza batzuk proatzen hasi nintzen: gaztetxoekin epaile, entrenatzaile, selekzioarekin laguntzaile... Espainiako txapelketa batera joan nintzen euskal selekzioarekin, eta han piztu zitzaidan harra. Ondoren, gizonen taldeko entrenatzailearen laguntzailea izateko aukera eman zidan ISBk. Ordura arte, infantilen talde bat soilik entrenatu nuen, eta *pakete* bat nin-

tzen. Aukera eman zidaten, ordea, eta erabaki nuen tren hura hartzea. Eta honaino iritsi naiz, nahiz eta horrek ez duen esan nahi denboraldi guztiak bukatu berri dena bezalakoak izan direnik.

Kluba barru-barrutik ezagutzen duzu. Aldea da?

Etxeko entrenatzaileak izateak bi alde on ditu: batetik, kluba eta taldeko jendea asko ezagutzen dudala eta badakidala zer behar duten; eta, bestetik, ego pertso-

nala. Izan ere, kanpoko entrenatzaileak emaitza jakin baten bila etortzen dira, eta etxekoa izanda, garrantzia gehiago ematen diezu beste gauza batzuei, hala nola etxeko jokalariei aukera emateari edo emaitzen gainetik kirolariak hobeteari. Beste batzuk dira helburuak. Halere, askotan gogorra da, min handia sortzen baitu zure herrian, zure jendearen eta lagunaren aurrean, zortzi partida jarraian galtzeak. Gehiago bizitzen duzu dena, nik uste.

Lau denboraldi egin dituzu Zilarrezko LEB Mailako entrenatzaile postuan. Zertan aldatu da taldea urte guztio-tan? Eta zu?

Taldeak bilakaera izan du. Lehen denboraldian ez nituen ezagutzen ligak zer eskakizun zituen, ez nituen jokalariai aurkitzen eta asko kanpokoak ziren. Denboraldia bukatu eta berriz ere hutsetik hasi behar izaten genuen. Hura ez zela posible ikusi eta buruari

“gipuzkoan, guztiok elkartzen gara edo dena pikutara joango da”

“zortzi partida jarraian galdu, eta afizioa txaloka ikustea izugarria da”

bueltak eman ostean, filosofiaz aldatu genuen. Gipuzkoako jendeari aukera ematea erdietsi genuen, garapena hortik etorriko zela sinetsita. Iritsi da unea zeinetan jokalaria batzuek bigarren denboraldia egin duten taldean. Elkar asko ezagutzen dugu, gertutasun handia daukagu bai kantxan eta bai handik kanpo, eta horrek balio erantsia ematen du. Niri dagokidanez, berriz, esango nuke lehen ez nuela maina askorik; oso metodikoa nintzen, beti egurra ematen aritzen nintzen, eta aldatu egin naiz. Saiatzen naiz jokariak motibatzen; beraz, jarrera aldetik ere aldatu naiz. Lasaitasuna, urteek ematen duten patxada, lortu dut azken urteotan.

Konfiantza ere lortu duzu?

Bai. Lehen urtean, beldurrez ez, baina niretzat gehiegi izango ote zen kezka banuen. Baina gauzak ondo egitean ikusten duzu jokariak ere erantzuten dutela, eta hori garrantzitsua da. Horrek ematen du aurrera egiteko indarra.

Zilarrezko LEB Mailako entrenatzaile gazteena izan zara. Nabaritu duzu hori?

Hala izan naiz, eta federaziokoek esan didatenez, mailaz igotzea lortu duen entrenatzailearik gazteena ere bai. Orokorrean ez dut nabaritu gaztea naizelako alderik, baina jokalariren batek jarri nau aproban. Normala ere bada, pentsatuko dute: "28 urte bakarrik ditu, hau ume moko bat da". Halere, taldeko jokalaria gehienak nire adin bueltakoak dira, eta denboraldia hasi eta lehen bi asteetan ikusi zuten saiatzen naizela eta daukadan guztia ematen dudala. Nik uste geuk buruan ditugun aurreiritzietatik gehiago duela adinarean kontuak. Behin galtza motzak eta kamiseta jantzitakoan, kito; ez dago desberdintasunik.

Afizioa lagun izan duze. Nola nabaritzen da harmailetak beroa kantxan?

Gaizki ohitzen ari gara, izugarriko afizioa dugu. Zazpi urte darmatzat mutilen lehen taldean, eta

partida batean ere ez dut ikusi jende gutxi kiroldegian. Zortzi partida jarraian galdu, eta afizioa txaloka ikustea izugarria da. Ez gara jabetzen dugun zorteaz, eta "eskerrik asko" bat ez da nahikoa zaleei eman diguten babesa eskertzeko.

Zer harreman duzue Gipuzkoako gainerako klubekin?

Bakoitzak geureari begiratzene diogu. Ireki behar genuke pixka bat, jokalariren trukeak eta egiteko; izan ere, hartu egin behar da, baina eman ere bai. GBC hor dago, baina... Mailaz igo dira, eta oso ondo, baina ia hiru milioi euroko zorra dauka. Xabi Oroz gure jokalaria ohia han dago. Nik uste taldeak zatitzen ari garela, eta elkartu egin behar genukeela. Elkarri mina egiten ari gara. Gipuzkoan, guztiok elkartzen gara edo dena pikutara joango da. Harremanak normaldu behar ditugu. Garbi daukat Gipuzkoako lehen taldeak Donostian egon behar duela, horretan ez dut zalantzarik,

baina jarrera aldatu behar dute batzuek.

Zer eman dizu Iraurgik? Eta kendu?

Garrantzitsuenak: lagun on asko. Txapeldun izan gara, baina aurten, eta hemendik bi urtera lagunak hor izango ditut. Bestalde, pertsona bezala hazi eta heldu egin naiz. Kendu, berriz, ordu asko kendu dizkit, lan asko eska-tzen baitu entrenatzaile izateak. Dena den, denbora kendu dit, baina saskibaloia gustuko dudalako.

Entrenatzaile lanetan ikusten duzu etorkizunean zure burua?

Ikusi bai, baina ez dut behar hori. Une onean nago, eta jarrai dezaket, baina ez dut beharrik sentitzen maila honetan segitzeko. Ez daukat arazorik talde gazteagoak entrenatzeko edo beste bide bat hartzeko. Gustura ibili naiz, gustukoa dut, eta aukera emanez gero, ezin ezetz esan, baina uneotan ez da ezinbestekoa nire bizi-tzan.✱



LANERAKO AUKERAK

- Ospitaleko erizain laguntzailea
- Zaharren egoitzetan
- Eguneko zentrotan
- Lehen artapenetako laguntzailea
- Kontsulta pribatuetan
- Hortz-kliniketan laguntzailea
- Gaixoen zaintza

AURREMATRIKULA

Ekainaren 5etik 16ra

MATRIKULA EPEA

Uztailaren 13tik 19ra

J.M. IPARRAGIRRE BHI



Nekolalde, 16
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tel / Faxa: 943721403 / 943721413
www.jmiparragirre.eus
012286aa@hezkuntza.net



*Erdi mailako
heziketa
zikloa*

Osasun familia
A-D EREDUAK

**ERIZAIN
LAGUNTZAILEA**

Maite zaituztet

Denbora eskatzen digutenean, badirudi, errazena maitasunari orduak lapurtzea dela. Itxura denez, sentimendu politen altxorra eskuen artean dugunean, galtzeko beldurra gutxi izutzen gaitu. Besteak beste, berdina zaigu beste norbaitegatik sentitzen duguna edo geure burua maitatzeko sentitzen duguna izan, norbait denbora eskean datorkigunean, alde batera uzten dugun aurreneko gauza maitasuna da. Nola-bait, sinetsia dugu maite gaituenak errazago barkatuko gaituela ia ezagutzen ez gaituen horrek baino. Agian, ezetz esaten ez dakigulako izango da, eta ikasi beharko dugu nahi dugunaz gozatzeko denbora hartzen. Behar-bada, balio bera ez diogula ematen ez delako ordaintzen, eta ikasi beharko dugu diruak ez duela zoriontasun oro ziurtatzen.

Denborarekin dugun etengabeko gatazkan eternitateraino luzatzen ditugu lana edo ikasketak. Era berean, ez ote dugu uste maitasuna ere eternitatera luzatzen dela inolako arretarik eskaini behar izan gabe? Ez ote dugu uste maitasuna ere berez sortzen, hazten eta amaitzen dela? Ez ote digu pantailaren batek, bederen, maitatzen irakatsiko?

Itzal eta argi artean ertz asko ditu maitasunak, besteak beste, ulertzeko, sentitzeko eta bizitzeko moduan. Behin, horretaz solasean ari ginela, maite nauen pertsona batek galde-tu zidan: Maite al zara? Ez nintzen gai izan egia erantzuteko. Ordura arte, ez nuen uste nire burua maitatzeko aukerarik nuenik; aldiz, ingurukoek nigitik sentitzen zutena besterik ez zitzaidan axola. Ingurukoek zain, ingurukoek esperoan, eta, aldi berean, nire burua zaindu gabe. Izan ere, nork pentsatu behar zuen nirekin, ez banintzen gai ene buruaz sentitzen nuenaren berri izateko ere.

Oso zaila da zoriontsu zerk egiten gaituen jakitea. Alabaina, bada denborarekin eta esfortzuarekin lortzen duen jendea. Hari horri tiraka, lagun batek kontatu zidanarekin oroitu naiz. Hark zioen, goizero, esnatzeko presarik



egoitz arruti

||| Ez ote dugu uste maitasuna ere eternitatera luzatzen dela inolako arretarik eskaini behar izan gabe?

izan ez arren, zazpitan altxatzen zela ohetik emaztearekin gosaltzeko. Une hori ei zen beraiantzat egun guztitik gehien atsegin zutena: biek batera kafea prestatu, gailera batzukan, eta, bide batez, egunari aurre egiteko indarrak ematen zizkietela elkarri. Argi zuen goizetako une horrek zoriontsu egiten zuela, eta, aldi berean, berarekin zegoena ere zoriontsu zela. Une arrunta eta xumea, baina ederra.

Baldintzarik gabe

Bada, ordea, bestelako kasurik ere: sarritan gertatzen zaigu sentimenduen erlojua atzeratua eramatea. Horrela, denbora aurrera doan heinean ohartzen gara berandu gabiltzala, eta, adibidez, loreak biltzera joaten garenean konturatzen gara jada negua dela. Edo bihotzez atsegin dugun pertsonari beranduegi esaten diogu maite dugula, edo, besterik gabe, ez diogu esaten jada ez digulako entzungo. Beraz, ez nuke aukera eta denbora geihago galdu nahi maite zaituztedan orori zera esateko; inolako baldintzarik gabe, maite zaituztet.✱



Hutsa nola bete

U

kaezina bezain bistakoa da gazteok etxebizitzarekin dugun arazo kronikoa, gainetik kendu ezin dugun gaitz horietakoa da. Egun, ez da erraza gurasoen etxea utzi eta gure teiltupe propioa izatea. Sasi-emantzipazio bat lortzen dugu 18 urte bete eta ikasketak herritik kanpo egin izan ditugunetik zenbaitek, baina herrira bueltatzeaz batera ohartzen gara ez dela bideragarria geure kasa bizileku propio bat alokatzea, eta zer esanik ez, etxe bat erostea.

Zorionez, azken urteotan Azpeitiko Udalak eman dituen alokairurako laguntzak direla eta, samurragoa zaigu etxe bat alokatzea. Hain zuzen ere, badira hilabete batzuk udaletxetik dei bat jaso nuenetik gai horren inguruko inkesta bat zela medio. Galdetu zidaten, besteak beste, etxebizitzaren arazoa beste arazo batzuekin alderatuta, ranking batean zein postutan kokatuko ote nukeen. Ez nuke hipokrita izan nahi, eta aitortzen dut niretzat badirela etxe propioa izatea baino kontu garrantzitsuagoak, baina urrezko postua eman nion arazo honi, gazteok zinez garrantzitsua eta amorragarria den egoera bat bizi dugula jakin badakidalako.

Beranduago, irakurri nuen hainbat hotel berri irekiko dituztela Donostian, eta badirudi turistek behinik behin ez dutela lo egiteko leku faltarik izango Gipuzkoan. Irakurri nuen beste titular bat ere, zioena, Bilboko alde zaharrera gentrifikazioaren mehatxua heldu zela jada. Labur-labur azalduta, gentrifikazioak dakarrena da hiri eta herriguneen eraldaketa. Herritar xumeek etxebizitzak ordaindu ezin eta perfieriara joan behar izaten dute bizitzera. Orduan, gune hori elitizatu egiten da eta klase-maila altuko jendearetzat bilakatzen da. Hiri handietan pasatzen da, hainbat denda eta enpresa beren botere ekonomikoaz baliatzen direla, eta auzoaren bilakaera horretan eragile zuzen bilakatzen direla.

Galdetuko duzue zergatik lotu ote ditudan etxe hutsak, gentrifikazioa eta gazteok geure



|||||||anartz izagirre|||||

|||Kontua da errazagoa dela etxerik izan ezin duen norbait topatzea, ostaturik gabeko turistak topatzea baino

bizitoki propioa izateko ditugun arazoak. Bada, nonahi aurki ditzakegu etxe hutsak, eta beren etxea izan nahiko luketen gazteak aurkitzea ere ez da lan nekeza. Aldi berean, aldi baterako teiltupea lortzeko ahalegin berezirik egin behar izan ez duten turistak aurki ditzakegu hiri handien erdiguneetan lasai, poteatzen. Kontua da errazagoa dela etxerik izan ezin duen norbait topatzea, ostaturik gabeko turistak topatzea baino. Zalantza daukat, egun ez ote den asaldagarriago bihurtu uda pasatzera etorri den turista batek lo egiteko lekuri topatu ezin izana, herritarron etxebizitza arazoa bera baino.

Eraikin hutsen zarata

Egun, ez da zilegi bizitzeko leku bat behar duen norbaitek etxe huts bat okupatzea, baina onargarria da enpresa bat etxe hutsez baliatzea, auzoak erakargarri turistiko bilakatzeko, herritarrak bertatik kanporatzea, eta, funtsean, herri bat beste herri baten bilakatzeko. Eraikin hutsek zarata handia ateratzen dute beren isiltasunean, eta ez bereziki herritarrek okupatzen dituztelako. Axola duena ez da hutsa betetzea bakarrik, garrantzitsua da zerekin edo bereziki zergatik betetzen dituzun ere. Gazteok, edozer gerta ere, kondentatuta gaude gurasoen bizitokian logela bat libre edukitzera, edo turista dirudun bilakatzera, onartuak eta errespetatuak izan daitezun gu eta gure etxebizitza eskubidea.✱





Kids&Us: ingelesa ikasteko metodo iraultzailea

Azpeitiko Kids&Us-ek ateak ireki dizkigu, bigarren hizkuntza bat ikasteko metodo tradizionala iraultu duen ikasketa-metodoa ezagutzera emateko.

Azpeitiko zentroa 2016/2017 ikasturtean ireki zuten, eta ingelesa modu naturalean ikasle on diren 250 ikasle ditu dagoeneko.

Zer da Kids&Us metodoa?

Haurrak, adin txikiak izanda ere, hizkuntzalari bikainak dira. Haur baten hizkuntza jaiatzen denetik 36 hilabetera bitartean nola bilakatzen den ikusi besterik ez dago. Hiru urtetan, gizakia negarraren bidez komunikatzen ahal duen ikasle baten erakitzera igarotzen da. Adin horrekin, haur batek ikasteko duen joera, biologikoki, oso indartsua da, sortzetik gaitasunak baititu horretarako. Hala, bigarren hizkuntza bat ikastea eta gure ama-hizkuntza ikastea ez lirateke desberdinak izan behar.

Kids&Us-en «Natural English» metodoarekin, urtebetetik gorako haurrek ingelesa ikasten dute gure hizkuntza ikasten dugun antzeko moduan. Metodologia berezi horrek ama-hizkuntza ikasteko prozesu naturala eta berezkoa du oinarri. Ordens jakin bat du prozesu horrek, ikasgelan erabiltzen den berbera: entzun, entzundakoa ulertu, hitzez adierazi eta, azkenik, urte batzuk aurrerago, irakurri eta idatzi.

Metodoaren etapak

Hortik etapa hauek zeharo zehaztuta daude, haur txiki batek bere ama-hizkuntza ikasten duen prozesuaren arabera:

ENTZUTEA

Begien bistakoa da hizkuntza barneratze prozesua haurra hitz egiten hasi baino askoz ere lehenago abiatzen dela. Horregatik, Kids&Us-ek zera proposatzen du: haurrak urtebete dutenetik aurrera hasita hizkuntza berria barneratzen, egunero hizkuntzaren eraginpean jartzen.

ULERTZEA

Une eta testuinguru desberdinetan hitz-konbinazio berak entzun eta gero, haurrak entzuten duen guztiaren esanahia ulertzen du. Gurasoek modu naturalean hitz egiten dute seme-alabekin, komunikazioan hitz, espresio eta esaldi desberdin ugari erabiltzen. Askotariko aditz-formekin Kids&Us-ek egoera hori bera erreplikatzeko du ikasleekin, eta hizkuntza erreala eraginpean ipintzen ditu, erraz ulertu ditzaketen testuinguruetan.

HITZ EGITEA

Entzun eta ulertzearen berezko ondorioa da hitz egitea. Horregatik, haurrak entzun eta ulertu ondoren, egoerak sortuko dituzte, ikasten joan diren guztia testuinguruan hitzez adierazi ahal izateko.

IRAKURTZEA ETA IDAZTEA

Irakurtzea da entzun, ulertu eta hitz egitearen berezko ondorioa. Naturaren kontrako da irakurtzearen eta idaztearen bidez hizkuntza bat ikastea; hegoak zabalitzen ez dakien txori bat hegaz egiten saiatzea bezalakoxea da. Era berean, idaztea pentsamenduak ari batean islatzea da. Hizkuntza-garapeneren fase

horretara heltzeko, nahitaezkoa da lehenetik aurreko beste etapak (entzutea, ulertzea eta hitz egitea) gainditzea.

Kids&Us-en, haurrak hizkuntza berri baten aurrean jartzen dira modu orokorrean, baina adierazko egokiak diren egoera eta testuinguruetan, ikasteko gaitasun horretaz guztiaz baliatzen. Erabateko hizkuntza-murgiltze bat egiten da, ipuinen, jolasen, abestiaren eta dantzen bidez, eta murgiltze hori material pedagogiko esklusiboekin osatzen da.

Ikasketa-fonek 18 urtera bitartean jarraitzen du, baina metodoan 8 urtetik 7ra bitartekoak bakarrik has daitezke, adin-larte horretan baita haurrak ikasteko ahalmen handiagoa. 18 urterekin, gazteek hizkuntza-gaitasun handiak izango dituzte, urtetan zehar hizkuntzaren eraginpean egon ondoren.

Informazio gehiago:

Kids&Us Azpeitia

Loiolako Ignazio Etorbidea, 12

20730 Azpeitia

Tel. 717 774 567 / 943 50 32 30

azpeitia@kidsandus.es

www.kidsandus.es

Kids&Us
school of english *Natural English*

Gure ikastetxea eta Kids&Us metodoa ezagutzeko aukera izango duzue ekaineko informazio-saioetan: hilaren 9 eta 21ean, 19:30ean. Asistentzia konfirmatzeko: T. 71 777 4567

||| HIZKUNTZ ESKUBIDEAK |||




GORA. Inoiz ez da berandu.

Uztarriaren martxoko zenbakian txartel gorria atera genion Erdikaleko lanetan jarritako kartelari. Gauzak ondo egiten direnean ere esan egin behar dira. 📌 **Uztarria**



BEHERA. Ikusten dira oraindik...

Ikusten dira oraindik gaztelania hutsean idatzitako kartelak herriko kaleetan. Txartel gorria egileari euskaratzen ez duen bitartean. 📎 **Uztarrria**✳️



Izaskun Egiguren.

|||ESANA DAGO|||||||

III “Kirolak aukera handia ematen du emakumeek espazio publikoan lekua hartzeko eta bertan presentzia izateko”

IZASKUN EGIGUREN
Emakumeen Txokoko
dinamizatzaileria

III “Benetan nahi
badugu gizartea
parte hartzaileagoa
izatea, garrantzitsua
da gizarte horrek
kultura zientifiko
egokia izatea”

III “Niretzat ardura soziala da zientzia gizarteratzea”

GORKA AZKUNE
ikerlaria




Sua

Ikasle ona nintzen. Urtean urtekoa aurrera ateratzeko ez nuen aparteko arazorik izaten. Nire gurasoek ez zuten inoiz irakasleekin hitz egitera joan beharrik izan (haiek bai garaiak). Baina ikasle garaitik ez zait oso oroitzapen ona gelditu. Karrera oso-oso luzea egin zitzaidan. Kazetaritza ikasketek ez ninduten batera bete. Esatea edo idaztea gogorra izango da, baina garai bateko soldaduskan urtebete alferrik galtzen bazen, nik unibertsitatean bost urte alferrik galdu nituen. Balio izan zidan gauza bakarra titulua izan zen. Nahi nuen lekuan lana egiteko beharrezkoa nuen

titulua. Beste ezer ere ez. Beno, bi lagun: Koldo eta Axkoiti. Karreran bost urtetan baino gehiago ikasi nuen irratiko egun batean. Behin, irakasle batek, muturra okertuta, Fragaren prentsa legea ondo jakin gabe nolako kazetaria izan nahi nuen galdetu zidan. Gaur gustura jakingo nuke irakasle hark kazetari bezala nola baloratzen nauen. Kontua da ez nuela jakiteko irakasten, azterketa gaitzeko ikasten nuela baizik (batzuetan, oso gutxitan, akademikoki dopatuta, baina ez esan inori, hau gu bion arteko sekretua izango da). Azken azterketa gainditu eta titulua

eskuetan izan nuenen, hura zen hura lasaitua.

Ikasle neska-mutilak oraintxe ariko dira jo eta su, ikasi eta ikasi; bat edo beste jakiteko, askok azterketak aprobatzeko eta beste askok nota ateratzeko. Egia esango dizuet, ez didazue batera inbidiarik ematen. Dena zuentzat. Hori bai, hamabost bat egun barru infernutik paradisura pasatuko zarete. Hiru hilabete izango dituzue infernuan jasotako suarekin paradisiko bazter guztiak erretzeko. Su horrek bai ematen didala inbidia. Haiek bai garaiak...✱



txetxu urbieta

IKUSTEKO!



▲ESERLEKU BERDEA, ZURI.

Irudiko eserlekua berdea zen izatez, baina "zuri" gelditu zen norbaitek kolore horretako pinturarekin margotu zuenean. Urrestilla eta Aratzerreka artean, Zuolako zubiaren parean, agertu zen horrela bankua duela aste batzuk. Lientzoa margotu orde, zer hobeago kaleko jarlekuak nahieran uztea baino. Bada lanak hartzen dituenik! 📞Julene Frantzesena📞 Mailo Oiarzabal✱

MAIATZEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Zorionak, berriro

GORKA AZKUNE. Ez da CAF-Elhuyar sarietan azpeitiarraren izena entzuten den lehen aldia. Izan ere, Azkunek zientzia dibulgaziorako sariketetan seigarrenez jaso du golardoa. Badira herrian ikerlari pila, aurretik ere izan ziren, eta ziur etorkizunean ere izango direla. Animo Gorka, eta disfrutatu, lanean sariak jaso edo ez. Egindako lana txukuna bada, hartzaileen esker ona da saririk onena!



alex silva



Protesta bai, horrela ez

‘MOZAL LEGEA’. Denbora da Espainiako gobernauak Mozal Legea onartu zuela. Lege guztiz onartezina da, kazetarioi lanerako mugak jartzen dizkigulako eta gizarte demokratikoak ongi informatzeko duen eskubidea urratzen duelako. Helburua: zentsuratzeko aukera izatea eta deserosoak izan daitezkeen lekukoak baztertzea. Horren kontra egitea ondo dago, baina ezin da onartu guztion baliabide publikoak hondatzea.



Naizena naizela, maitatua!

MAIATZAK 17. Harrigarria da 2017. urtean, oraindik, horrelako aldarriak egin beharra izatea. Baina beharrezkoa da, transfobia, lesbofobia eta homofobia eguneroko gai dira eta oraindik. Ez dira egun asko pasatu normaltasunaren eta bizikidetzaren aurkako autobus bat errepi-

deetan barrena zebilenetik. Horrelakoen kontra, ekitaldi polita izan zen Azpeitiko, maitasuna sexuaren, sexualitatearen, arrazaren eta adinaren gainetik jartzen baitzuen. Orain, erronka egunerokoa da, eta ez maiatzaren 17koa bakarrik.✕

INKESTA

jartzen al duzu
lizar adarrik
etxean?

Mailo Oiarzabal

KARMEN AROZENA

(67 urte)



“Urtero jarri izan
dugu, eta
pentsatzen dugu
jartzen segitzea.

Santio egunera arte edukitzen
ditugu”.

ARTURO ARANAGA

(65 urte)



“Anaia zaharrenak
ekartzen ditu
etxeko
guztientzat eta

ipintzen dugu, bai. Lehen,
ohitura zen gero gurutzeak
egitea”.

MARIA UDABE

(85 urte)



“Urtero jartzen
ditut lizar adarrak
balkoian, listoi
txiki batekin

lotuta. Etxe zaharrean jartzen
genituen, eta berrira aldatu
ginenean ere berdin”.

KONTXI ETXEBERRIA

(47 urte)



“Inoiz ez dut ipini
neure etxean.
Baserrian bai,
gure amak urtero

jartzen zituen”.



Liburuen txokoak

Lehengoan lagun batek ikasliburu baten lehen orriaren argazki bat bidali zidan. Nire izen-abizenak zeramatzan, neuk idatzia; duela zazpi urte ikastolan erabili nuen matematikako ikasliburua zen. Harriturik gelditu nintzen. Berehala pentsatu nuen liburu hark zazpi urte zeramatzala, han-hemenka bere istorio propioa eraikitzen, hamaika esku, motxila, apal eta abarretatik pasatuko zen... Eta ohartu nintzen gutako bakoitzak etengabe milaka aztarna uzten dituela, gauzak batetik bestera eramaten ditugula, hara eta hona, eta objektu bizi-gabe horri istorio bat eraikitzen joaten zaiola.

Matematikako liburuaren pasadizo horrek beste kontu bat ekarri zidan gogora. Ez dakit ohartu zarenten Azpeitiko hainbat txokotan liburutegi txiki eta koloretsu batzuk azaldu direla; ohiko apalak utzi eta liburuak kalera atera dituzte. Igerileku aurrean, anbulatorioko autobus geltokian eta beste hainbat gunetan jarri dituzte, eta kalean ibili naizenetan

ikusi izan dut nor edo nor, kuriositateak bultzatuta, liburu artean muturra sartuta. Denontzako literatura dago txoko txiki horietan, eta aleen mamia ere antza da. Abenturazkoak, amodiozkoak, beldurrezkoak, biografiak... aurki ditzakegu.

Oso ekimen berritzailea eta parte-hartzailea iruditzen zait, hartu-emanaren sustatzen duena. Kultura kalera ateratzeko proiektua da, jendea entretenitzeko aproposa, eta, ausartuz gero, aukera eman dezake norberak idatzitako literatura bertan uzteko.

Niri txikitatiki gustatu izan zait liburu bat hartu eta haren istorioan murgiltzea, eta ekintza honetan nire ale tipia ematea otu zait, gure gizartean irakurmene landu eta sustatu beharra dagoela uste dudalako. Ekaineko egunen batean, irakurketa txoko horietakoren batera hurbildu eta liburu bat utziko dut, barnean mezu batekin. Ea nork aurkitzen duen lehenen, eta ea elkarrekin liburu horren bidaia hasiera ematen diogun!*



lierni varela

galdetzen hasita, Aste santuko moduan,
tren turistikoa jarriko al du udalak
abuztuan herrian? Uztarrria

Zahartzen ikasi

Inork ez du gazterik hil nahi, baina inork ez du nahi zahartzerik. A zer maritila! Bizitza luzatu, baina zahartu gabe; heriotza mugarik gabe atzeratu, baina beti gazte iraunez; hil ez, baina ezta zahartu ere. Nola?

Horren atzetik dabilta zientziak, eta auskalo noraino iritsiko diren. Oraindik orain, entzuten nion zientzialari bati 200 urte harrapatuko dituztenak jaiota daudela. Eta zergatik ez gero 300, 400, 1.000 urte? Zergatik ez etengabe bizirik iraun, organo eta zelulak beti gazte mantenduz edota zahartu ahala berrituz?

Pentsatzeak ere ikara ematen dit, baina ez dakit zer esan. Ongi etorri bitez, noski, zientziaren aurrerapen guztiak, guztion onerako badira. Hor dago gakoa, gako bikoitz bihurria: biziaren onerako eta guztion onerako izatea. Ni, gaur gaurkoz, ez naiz fio bi baldintza bereizezin horiek batera beteko direla. Beldur naiz, hainbat eta hainbat aurrerapen ez ote diren gizakien onerako soilik izango, eta tximino, izurde, hegazti eta landareen kalterako. Beldur naiz, gainera, ez ote

diren gizaki aberats batzuen onerako soilik izango, eta pobreen –gero eta pobretuagoen– kalterako.


Haratago. Nago, gorputzari beti gazte eta sasoiaren euste hutsarekin ez dugula onura handirik izango. Ikusi bestela: botikarik botika eta parafarmaziarik parafarmazia gabiltza, belardendarik belardenda eta drogeriarik drogeria, superfizie handietan oraintxe eta *on line* dendetan geroxeago, betiko gaztetasunaren elixir bila. Zer irabazten dugu, ordea? Gorputz “perfektuak” batzuentzat, eta inorentzat zorianik ez.

Beti erabat sano egon nahi duenak zoriona galtzen du eta osasunik irabazten ez. Zertarako dugu gazte eta sasoiatsu irautea, zahartzen ere ikasten ez badugu? Zertarako da bizitza etengabe luzatzea, hiltzen ere ikasten ez badugu? Ematen jakiteak bakarrik egiten gaitu aberats.

“Zahartzen” eta “hiltzen” jakiteak bakarrik egiten gaitu jakitsu. Azken arnasaraino emanez egiten du gure amasak Bizi Arnasa hilezkorrarekin bat.*



joxe arregi



Yalah, yalah!

Hurritz, halako batean konturatu naiz horratik! Eta nik uste nuen, lapiko halakoak, jatekoa ahoratzeko modua zenuela garban-tzuei uko egiteko kausa! Hegazkinak utzi eta kamioien karabana solidarioa antolatzen ibili banintzen ere, orain garbi ikusten dut nire ahaleginaren alferrikakoa zertan den... Lehenago esan ba, elkartasun ekintza bat dela!

Twitterren irakurri dut 1.500 preso palestinarrek jateari uko egin diotela beren baldintzak hobetu arte. Bikotearekin egoteko aukerarik gabe, abokatuarekin kristala tartean dela hitz egin beharra, ikasketak egiteko de-

bekua, telefonoa erabiltzeko ezina... hamai-ka ditu arrazoiak Palestinako preso politikoek gainerako presoek eskubide berberak eskatzeko apirilaren 17an hasi zuten protestak.

Ez dakit ba ote den gose greba baino borroka molde gogorragorik, baina inork eskubideak aldarrikatzeko bere burua trantze horretan jartzen duenean hormarik gogorrenak ere dar-dar egiten du. Ni jaio nintzen urteko irudiak izan arren, ez dira ahazten errazak Juan Jose Crespo bizkaitarrari, dena hezur eta azal, dena begi-zulo, ospitalean atera zizkieten argazki haiek. Ez eta Bobby Sands eta

lagunen Long Kesh-eko borrokak erakusten zituen *Hunger* filma ere. Pentsatzen dut justizia gose handiz ibiliko direla egunotan Palestinako etxe asko.

Yalah yalah, Hurritz! Nahi baduzu lekukoa pasatu eta txanda hartuko dizut hasia duzun elkartasun ekintza txiki horretan. Jan zuk lasai askaritarako prestatu dizudan fruta, eta ordainetan ni geratuko naiz afaria jan gabe. Ea, gutxienez, txokokeri goxoan gero eta erosoago bizitzen ohitu zaidan neure kontzientzia mazkal hau astintzea lortzen dudan tripa-zorriak lanean jarrita.*



|||||||xabi borda|||||||

Erotikan Plax!

Azpeitiko suhiltzaileen parkean lan egiten duen Ugaitz Agirregomezkortak erantzun ditu hilabete honetako galderak.

Lanaren alderik gustukoena?
Inprobisazioa.

Entrenamenduak, praktikak... Aurrez etxeko lanak ondo egiteak laguntzen du? Eta sexualitate kontuetan zer landu behar da aurrez?

Konfiantza.

Sua, piztu edo itzali?

Itzali.

Zein da itzali duzun surik handiena?

Bihotzean piztutakoa.

Norekin kiskalduko zinateke?

Bikotekidearekin.

Suhiltzaileak, normalean, oso desiratuak izaten zarete...

Lanerako deitzen digutenean, batik bat (kar, kar, kar).

Nondik aterako zinateke ziztu bizian?

Armairutik.

Ausardia behar da...

Sentitzen dena esateko.

Bitxikeriarik edo sexualitateari lotutako anekdotarik?

||||UGAITZ AGIRREGOMEZKORTA||||



||||Erotikan Plax! sexu eta bikote aholkularitza:||||

- Sindikatu Zaharra, 2. solairua

- 688 89 79 20

- Hitzorduak, hilabetea: hilaren 7an eta 28an (16:00-19:00) eta 17an (10:00-13:00).

Adina. 36 urte.
Herria. Azpeitia.
Bizitokia. Azpeitia.
Lanbidea. Suhiltzailea.

Behin, lankideak igogailuan harra-patuta gelditu ziren gizon-emakume batzuk ateratzera joan ziren. Igogailua irekitzea lortu zutenean, hala esan omen zien emakumeak: "Hara, hauek ez dira egutegikoak!".

Zer iruditu zaizu Bilboko suhiltzaileen egutegia?

Komentariok ez.

Geroz eta emakume suhiltzaile gehiago dago...

Frogak gainditzen dituen edonor, aurrera.

Lanetik kanpo laguntzen du suhiltzaile jantziak?

Ez luke hala izan behar, baina zenbait kasutan bai.

Plazer hutsagatik egiten duzun zerbait?

Bizitzaz gozatu.

Zintzilik duzun desioaren bat?

Himalaiara joatea.

Usain bat?

Kresalarena.

Kolore bat?

Gorria.*



Nola begiratzzen den

Jostailuzko kotxetxo bat eta mugikorra nahikoak ditu Leire Larrañagak irudi bitxi bezain ikusgarriak sortzeko. Hemen, batzuk. 📧 Mailo Oiarzabal 📷 Leire Larrañaga



▲ ELURRETAN.

Joan den neguan hasi zen Leire Larrañaga jostailuzko autoarekin argazkiak ateratzen. Piaggio baten miniatura da, duela urte batzuk Siziliara egin zuen bidaia batean erositakoa. "Lagunak ohiko oroigarriak erosten ari ziren, eta niri kotxetxo gustatu. Italiako hegoaldean horrelakoak zientoka ikusten dira".



▲ "IT'S GLYN JONES FAULT".

Ingeleseko irakaslearen "erruz" hasi zen Larrañaga jostailuzko autoarekin argazkiak bereziak ateratzen. "Gogoratu, 'It's Glyn Jones fault!'", dio berak. Bilduma bitxiak egiten dituen jendea hizpide izan zuten haren eskoletako batean, eta orduan piztu zitzaion ideia. Pinterest sare sozialean badu kontua Larrañagak, eta han ere topatu zituen bera egiten hasi denaren antzeko argazkiak elkarbanatzen dituzten egileak eta taldeak, jostailuzko ibilgailuak, ikuspuntuak eta eskalak nahastuz efektu ikusgarriak lortzen dituztenak, Bilboko Iberdrola dorrearekin ateratako honen modukoak.



▲ ETXEAN.

Pirinioetan eta Bilbon ez ezik, Azpeitiko hainbat txokotan ere ari da argazkiak egiten Leire Larrañaga: Danona inguruan (argazkian), Lasaon, Loiolan, Madalenen edo Amuko zubi aldean 'ibili' da Piaggio urdina; "betiko isokarroa, gurean", egileak zehaztu duen bezala.

► OSAGARRIAK.

Paisaiarekin eta kokapenekin jokatzear gain, argazki batzuetan beste osagarri edo apaingarri batzuk ere erabili ditu Larrañagak, lore hauek kasu.



Loiola

Piaggio

#TRAVELINGCARS



▲ **AUTO BIDAIAIRIAK.**

'Travelling cars' (auto bidaiariak) etiketa darabil Larrañagak argazkiak sarera igotzeko. Hitz horiek Interneteko bilatzailean sartuta, antzeko bildumak egiten dituztenen argazki pila bat aurki daitezke.

▼ **ETENDAKO MAGIA.**

Irudiotan ikuspuntua eta eskala oinarritzkoak dira, egileak lortu nahi duen efektua erdiesteko. Beti ez da lortzen, ordea; erle batek edo txirrindulari batek eten dezakete magia, argazki honetan gertatu bezala.



► **EGUTEGIA BURUAN.**

Larrañagak dio ez dela bazter guztietara kotxetxoarekin joaten, baina eramaten duenean saiatzen da zukua ateratzen. Bilduma ari da mardultzen. Helburua, 2018rako egutegia osatzea.✱

Aliantzak josten

Herritar ugarik parte hartu du Askapenaren brigadetan. Herrialde desberdinetako borrokak gertutik ezagutzeko parada izan dute. 📌 Ihintza Elustondo/Julene Frantzesena

Askapena erakunde internazionalistak 30 urte bete ditu aurtén. 80. hamarkadaz geroztik, “borrokak pil-pilean” diren herrialde desberdinetara brigadak antolatzen ditu erakundeak, eta, urtez urte, norakoak ugaritu egin ditu. Hasierako urteetan, Nikaraguara eta Ertamerikara antolatu zituen brigadak, eta, harrezkero, Venezuelara, Argentinara, Uruguaira, Mexikora, Palestinara, Mendebaldeko Saharara, Greziara, Irlandara, Korsikara, Andaluziara edo Galiziara joan dira euskal herritarrek, besteak beste.

Ainhua Alberdi (Azpeitia, 1991) Askapenakidea da duela urtebete ingurutik. Hark dioenez, beti interesatu zaizkio munduko gatazkak eta gerrak, eta beti nahi izan ditu horiek ulertu. “Gatazka bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina erroa bera da: atzean klase jakin baten interes ekonomikoak daude, eta klase interes horiei eusteko eta horiek defendatzeko, dena egiteko prest daude horiek. Gerrak, manipulazio mediatikoa, langileen esplotazioa, emakumeen zapalkuntza, kontrol soziala, indibidualizazioa... hori dena ulertzen eta horiei aurre egiteko bitartekoak zeintzuk diren ikasten lagundu dit internazionalismoak”, azaldu du.

Askapenaren brigadak “borrokan” ari diren herrialdeetara egiten dituztela esan du Alberdik. “Zapalkuntza nazional, kapitalista eta patriarkalari ari dira aurre egiten herrialde



Herrialde Katalanetara brigadan joandako kideak. Aldalur ezkerretik hirugarrena da. ||| Beñat Aldalur

horietan. Eta herrien arteko borrokak uztartuta soilik lortuko dute herriek burujabetza osoa. Hori da xedea: herriak burujabe izateko borrokan aliantzak sortzea”.

Askapenaren funtsa da Euskal Herri sozialista, feminista, internazionalista eta euskalduna eraikitzen bidean lan egitea, “beste herrietatik ikasiz, haiekin elkar elikatuz eta gure herriarekiko elkartasuna bilatuz”, dio Alberdik. “Askapenaren egitekoa da borrokak uztartzea”. Hark esan du horretarako “ezinbesteko” tresna direla brigadak. “Ikusitako gatazken erroa gurearen berbera dela identifi-

katzea da helburua, dominazio marko baren aurka ari garela borrokan ikustea, alegia”.

Alberdik 30 urteotako ibilbidearen balorazio “positiboa” egin du, baina dena ez da izan horren gozoa Askapenaren ibilian. Izan ere, erakundea legez kanpo uztea eta bost militante espetxeratzea eskatu zuen Espainiako Auzitegi Nazionaleko fiskalak 2015ean, ETA-rekin lotura zutelakoan, baina, epaiketa egin da, absolbitu egin zituzten guztiak. Alberdik dioenez, erakundearen etorkizuna “kolokan” izan zen une batez, baina “jendearen babesarekin-eta” lortu dute egoerari buelta ema-

tea, eta hark dio “gogotsu” ekin diotela berri-
ro lanari. “Munduaren egoera tamalgarri
honen aurrean, inoiz baino garrantzitsuagoa
da internazionalismoa”, haren arabera.

Asko dira Askapenaren brigadetan parte
hartu duten herritarrek. Hainbat herrialde-
ta errealtate eta egoerak ezagutu ahal izan
dituzte horiek urte desberdinetan egindako
bidaietan, eta horietako bostekin hitz egin du
Uztariak.

HERRIALDE KATALANAK

||| **Brigadista.** Beñat Aldalur (Azpeitia,
1995). ||| **Bidaiaaren data.** 2014. urtea.

“Nazio auziaren bilakaera
ezagutzeko aukera izan
nuen”

“Saharako brigadan parte hartu nuen
2015ean eta aurreko urtean Herrialde Katala-
netan izan nintzen. Herrialde Katalanetara irai-
lean joan ginen, irailaren 11 n ospatzen baitute
han festa nazional nagusienetako bat.

Arrazoi desberdinek bultzatu naute bi espe-
rientzia horiek ezagutzera. Herrialde Katalanei
dagokionez, bizi errealtate ezberdinen erake-
ta oinarri duten esperientzia dezente ari dira
martxan jartzen, autogestioa oinarri hartuta.
Bizi proiektu eraldatzaileez haratago, nazio
auziaren bilakaera bertatik bertara ezagutze-
ko aukera izan nuen; gehiegitan estalita gera-
tu ohi diren iritziak jasotzeko eta masa komuni-
kabide zein bertsio ofizialetatik haratago lane-
an ari diren militanteekin egoteko abagunea
izan nuen.

Pozesu independentistaren auzia pil-pilean
zegoen momentu batean ezagutu genituen
Herrialde Katalanak. Gure ideario kolektiboan
Euskal Herria zazpi lurraldek osatzen dutela
argi dugun moduan, Herrialde Katalanak ez
dira soilik Kataluniako Printzerria; Valentzia
zein iparraldean ere zapalkuntza linguistiko
zein kulturala badira. Iparraldean egoteko au-
kerarik izan ez bagenuen ere, hegoaldera hur-
biltzeko aukera izan genuen, eta niretzat nahi-
koa esperientzia berritzailea izan zen. Horren-
bestez, Herrialde Katalanen gaineko espe-
rientzia zehatzagoa bizitzeko aukera izan
nuen, aberasgarria izan zen dudarik gabe. Aldi
berean, aberatsentzat zein txiroentzat eraiki
nahi den estatu proiektu baten interes ezku-
tuak gertuagotik ezagutzeko aukera ere izan
nuen, hainbat ulkerera argitzen lagundu zidan
bidaia. Borroka esperientzia asko ere ezagu-



Venezuelara joan ziren lagunak. Goiko ilaran, ezkerretik hirugarrena da Agirretxe. ||| **Amaia Agirretxe**

tu genituen, eta ezagutzen ez genituen hain-
bat proiektu zein horien atzean dauden
pertsonak ere bai”.

VENEZUELA

||| **Brigadista.** Amaia Agirretxe (Azpeitia,
1991). ||| **Bidaiaaren data.** 2013. urtea.

“Bizitakoak eta ikasitakoak
merezi izan zuen”

“Banuen Venezuelako herria eta bertako erre-
alitatea ezagutzeko gogo, baita brigada in-
ternazionalisten berri ere. Hugo Chavezen he-
riotza izan zen, hala ere, bidaia urte hartan
egin nahi izatearen arrazoiak.

Brigadak aukera eman zigun bi herrialdeen
arteko loturak sendotzeko eta loturak egiteko.
Venezuelako borrokak lehen pertsonan eza-
gutu ahal izan nituen, eta gure herriaren aska-
pen prozesuaren berri eman genien hango
herritarrei. Aliantza pertsonaletatik abiatuz,
mugimendu eta eragile desberdinen espe-
rientziak eta estrategiak partekatu ahal izan
genituen.

Chavezen heriotzaren ondoren, prozesu
bolibartarra zalantzan jartzen zuten ahotsak
hasiak ziren entzuten. Bertaratutakoan, era-
gile eta mugimendu ugari ezagutzeko aukera
izan genuen, prozesuarekiko atxikipena zute-
nak eta baita ahots kritikoak ere. Fabrika auto-
gestionatuak, ikasle mugimendua, irratia eta
komunikabide libreak, gobernuak martxan ja-

rritako programak eta herri boterea eraikitze-
ko sorturiko kontseilu komunalak ezagutu ge-
nituen, besteak beste.

Oso esperientzia aberatsa eta gomenda-
garria bizi izan nuen. Ez da bidaiaitzeko modu-
rik ohikoena agian; izan ere, kontuan hartu
behar da brigadan ez zaudela oporretan, ko-
lektiboak helburu politiko batzuk dituela.
Baina bizitakoak eta ikasitakoak merezi izan
zuen”.

PALESTINA

||| **Brigadista.** Iker Salegi (Azpeitia, 1977).
||| **Bidaiaaren data.** 2006. urtea.

“Palestinarek bizi duten
egoera beldurgarria da”

“Cisjordanian eta Gazan izan ginen. Beti gus-
tatu izan zait bidaiaitzea eta beste herrialde-
tako errealtateak ezagutzea. Askapenaren
berri gaztetatik nuen, eta internazionalismoa
gutziz beharrezko sentitu izan dut. Ordura ar-
teko bidaia lagunekin eta neskalagunarekin
egin nituen, baina banuen gogo herrialdeak
sakonago ezagutzeko eta bertako egoerekin
gehiago inplikatzeko. Brigadak horretarako
aukera ematen zuela eta, Palestinara joatea
erabaki nuen.

Eskubide guztiak zapaldu dituen herria
da Palestina. Estatu sionistak militarizaturik
eta kontrolpean dauka lurraldea, palestina-
ren lurren kolonizazioarekin segitzen duen bi-

tartean. Izugarrizko horma dute eraikita palestinarrek banatzeko eta haien mugimenduak mugatzeko, kontrol dorreak daude alde guztietan, militarren presentzia ikaragarria da, atxiloketak, hilketak, gutxieneko giza eskubideen zapalkuntza jasanezina... Palestinako herria segurtasun handiko karteletan bahiturik daukate. Herritarrek ezin dute beren herrietatik irten, ikastolara zein lanera joateko *checkpoint*ak igaro behar dituzte, ezinezkoa dute bizimodu normala egitea; palestinarrek bizi duten egoera beldurgarria da.

Horren guztiaurrean aurrean palestinarren duintasuna eta eguneroko borroka ere ikusi genuen. Txalotzekoa da duten indarra eta irimotasuna etsaiaren aurrean burua ez makurtzeko eta beren eskubideen alde lanean jarraitzeko. Han egon ginen guztiok adeitasunez eta umore onez hartu gintuzten, eta horrek izugarrizko indarra ematen du.

Esperientzia oso polita izan zen, bertako jendearekin bizi izan genituen momentuak ezin baitira ahaztu. Bestalde, oso gogorra ere izan zen; izan ere, zu Euskal Herrira itzultzen zara, baina han utzi dituzun lagunek badakizu egoera oso zailean jarraituko dutela.

MEDEBALDEKO SAHARA

||| **Brigadista.** Irati Labak (Beizama, 1995).

||| **Bidaiaren data.** 2015. urtea.

“Bi ordu iraun zuen gure brigadak”

“Azken momentuko erabakia izan zen Mendebaldeko Saharara joatea. Hango egoeraz hitz egin zigun irakasle batek, eta interesgarria



Iker Salegi -ezkerretik hirugarrena- Palestinako eta Azkoitiko lagunekin. ||| **Iker Salegi**

egin zitzaidan. Gero jakin nuen Alain Arruti eta Beñat Aldalur azpeitiarrak ere joatekoak zirela hara, eta betiko opor turistikoak egin beharrean, brigadena oso aukera ona zela iruditu zitzaidan. Hara joan aurretik formakuntza saio batzuk egin genituen. Izan ere, jende askok ohitura du egokiena gure errealitatea dela sinesteko, eta hara joan eta gauzak irakatsi behar ditugula pentsatzeko, baina hori ez da horrela, errealitate guztiz ezberdinak dira.

Mendebaldeko Saharan gertatzen dena da brigadistei ez dietela sartzen uzten. Marokoko Gobernuak okupatuta du, eta ezin ginen brigadan joan. Horregatik, turista itxura ematen saiatu ginen: zazpi pertsona hiru taldetan banatu ginen; une eta toki ezberdinetatik joan ginen hegazkinez; hotel desberdinak hartu genituen... Ezagutu ez bagina bezala jokatu behar genuen. Hiru kontrol pasatuta, azkene-

an, iritsi ginen Saharara. Sahararrekin gelditu ginen hurrengo egunean. Beraien etxera iritsita, brigada hasi genezakeen. Baina bi ordu pasatzean, polizia marokoarra etorri zen. Etxetik atera ginen, pasaporteak kendu zizkiguten, muga batera eraman gintuzten, motxilak ireki zizkiguten, eskuko telefonoko argazki denak begiratu... Eta bidali egin gintuzten. Bi ordu iraun zuen gure brigadak. Gero, Marokora bueltatzerakoan, jendea segika-eta eduki genuen.

Brigada horretan argi gelditu zitzaigun zer errepresio jasaten duten sahararrek. Presoak ehunka kilometrora dituzte, ez diote brigadei sartzen uzten, ezin dute bandera sahararrik atera, ezin dute manifestaziorik egin, leku guztietan daude erregearen argazkiak eta haietako bakoitzaren azpian bi polizia, ez diete unibertsitateko zenbait ikasketa egiten uzten...



Labaka erdian eta haren eskuinetara Beñat Aldalur eta Alain Arruti Saharara joan ziren lagunekin. ||| **Irati Labaka**

Baina, halere, harrituta gelditu ginen borroka zer indarrekin egiten duten ikustean. Egoera hori bizita ere, ilusioa daukate. Bidaia ikasgai bat izan zen zentzu horretan.

Marokoko gobernuak ez du nahi hango egoeraren berri kanpoan zabaltzea, eta brigaden helburuetako bat hori da. Halere, Sahararik kanporatu izanak balio izan zigun albisteak oihartzuna edukitzeko eta hango errepresioaren berri emateko”.

MEXIKO IPARRALDEA

||| **Brigadista.** Maite Segurola (Azpeitia, 1981). ||| **Bidaiaaren data.** 2008. urtea.

“Aurkitu genuen egoerarako ez dago inor prestatzerik”

“Hasieran, aurrezkiak eta denbora banitue-
nez, Venezuelara joateko asmoa nuen; izan ere, martxan zen iraultza bolibartarra eta ikuspegi feministatik proposatzen ari zirena ere interes handikoa zen. Askapenako lagunek Mexiko iparraldeko brigadara joatea proposatu zidaten. Brigada berria zen, Ciudad Juarez barne hartzen zuena, eta ez nuen bi aldiz pentsatu. Baina brigada berria izanik, ardura puntu bat jarri genion geure buruari.

Brigadista joateko aukera ezagutzen nuen, eta internazionalismo feministaren inguruko hausnarketetan nenbilen orduan. Azken finean, patriarkatua sistema globala da, tokian-tokian bere adierazpideak baditu ere. Emakumeen erailketa masiboen, feminizidioen, fenomenoak berria zen guretzat garai hartan.

Joan aurretik, han topatuko nuenaz irakurtzen aritu nintzen, eta Askapenak ere prestatu gintuen brigada lanak egoki egiteko. Baina



Segurola -eskuinetik bigarrena- brigadako kideekin eta Mexikoko herritar batzuekin ||| **Maite Segurola**

han aurkitu genuen egoerarako ez dago inor prestatzerik: egunero 15-20 hildako, dekapitazioak, lurren desjabetze basatiak, emakumeen hilketak, narkotrafiko sareak eta gobernuaren ustelkeria, jatorrizko herrien diskriminazio bortitza, militanteen desagertaketak, AEBetako muga eta migrazioa... Errealitate horiek guztiek elkarren artean loturak zituzten. Dena oso konplexua eta korapilatsua zen han. Gainera, kontziente ginen han jaso eta lagundu gintuen jendea horretarako aukera sozio-ekonomikoa zuena zela.

Bestalde, esperientzia oso interesgarriak, borroka egiteko modu ugari zein jendarte justuago baten alde dena emateko prest zegoen

askotariko jendea eta eragileak aurkitu nintzen.

Komunitate osoak elkar hartuta makro proiektuen aurkako desobedientzia zibila praktikan jartzen ari ziren. Une oso interesgarria ari ziren bizitzen Mexikon ere; izan ere, Lacandonako 6. deklarazioaren ondorioz, zapatisten pentsaera hirietara zabaltzeko lanean ari ziren orduantxe.

Asko eragin zidan Ciudad Juarezeko esperientziak eta AEBetako muga bertatik bertara ikusteak. Emakume taldeetako batekin tana-
torio baten egin behar izan genuen bilera, beraien lagunetako bat erail zutelako aurreko egunean”.*

BIYONA
BERRIKUNTZAK-REFORMAS
www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza
zaharberritzea
nahi duzu?



Abercaino poligonos, 2
Tel. 943 355 016
Zarautz

Santiago auzoa, 12
Tel. 943 343 443
Zumaieta

Erositako etxebizitza
eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua
Gremioen koordinazioa
Epeak betetzea
Erakusketa handiak

San Juan, 16 edif. AXIII
Tel. 943 852 110
Azkoitia

Gestolaga Kalea, 18
Tel. 943 348 241
Zestoa

Ekiteko bultzada

Elkar argitaletxearen beka banari esker, liburuak argitaratu dituzte Miren Gorrotxategik eta Miren Garatek. “Gustura” daude erantzunarekin. 📖👉 Olaia Iraola

3 *ezkil* eta *Ekaitzaren zipriztinak*. Horiek dira Miren Gorrotxategik (Azpeitia, 1981) eta Miren Garatek (Azpeitia, 1985) argitaratu berri dituzten liburuak, hurrenez hurren. Lehenengoa literatura liburua da, misteriozkoa, hain zuzen ere; bigarrenkoa, aldiz, kazetaritza lana da. Biak ala biak Elkar argitaletxeak emandako bekei esker kaleratu dituzte; izan ere, Agustin Zubikarai beka jaso zuen Gorrotxategik eta Tene Mujika beka Garatek. Bekek ekonomikoki laguntzeaz gain, “ate garrantzitsuak” irekitzen dituztela esan dute.

Idazleek adierazi dutenez, hiruna idazlek osatzen dituzte beken epaimahaiak, eta haiek hautatzen dute zein lan saritu. Xabier Mendi-guren Elkarreko editorea izan zen epaimahai-kideetako bat, eta harekin egon dira kontaktuan bi azpeitiarrak liburua idazten aritu diren urtebetean. Azpeitiarrek azaldu dutenez, “antzeko prozesua” bizi izan dute biek.

Duela zortzi hilabetetatik dago salgai Gorrotxategiren *33 ezkil* liburua. Egileak azaldu duenez, “baserriko egoeraren isla” da lana. Garizmendi baserriko Ferminek burezur bat topatu du lurperatuta. Hark kalean bizi den Nestor semeari deituko dio, eta baita Berta andregai ohi arkeologoari ere. Hilotz hori ateratzen hasten direnean, ohartuko dira desagertuta dagoela eskeletoa. Hortik aurrera, hildako gehiago agertuko dira, eta misterioa

handituko da. “Misterioa izan da irakurlearen-tzat amua, eta amaierara arte entretenituta egongo da”. Gorrotxategiren lanari nobela beltzaren etiketa jarri diote.

“Jendeak esan dit, ni kalekumea izanda, ondo asmatu dudala baserriko garai bateko egoerak azaltzen”, adierazi du Gorrotxategik. Gainera, gertaera erreal batean oinarritutako lana da *33 ezkil*: “Duela urte batzuk nire osabak hezurak aurkitu zituen Oñatzen. Antxieta arkeologia taldekoak joan ziren bertara, eta hezurak Erdi Aroko gizon batenak zirela jakinarazi ziguten. Askoz gehiago ez dakigu; erre-na zela eta ezer gutxi gehiago. Gertaera hori oinarri hartuta hasi nintzen idazten”.

Garateren *Ekaitzaren zipriztinak* liburua, berriz, labetik atera berria da; apirilean kalera-tu zuen. “Ekonomia krisiaren errepasoa egiten duen kronika-liburua da”, dio idazleak. Krisiak gizartean utzitako ondorioetan zentratu da, “gogorrako ala leunago pertsona orori” eragin baitio haren iritzi. Adierazi duenez, liburuaren izenburuko *ekaitza* hitzak krisia islatzen du, eta *zipriztinak* hitzarekin krisiak herritarrek arazoz zipriztindu dituela esan nahi izan du.

Hainbat gai jorratu ditu idazleak, eta honako hauek dira horietako batzuk: berdintasunean krisiak nola eragin duen, dibertsitate falta edo zenbait kolektibok lan merkatuan sartzeko dituzten zailtasunak, ekintzailtza, finantzei lotu-tako engainuak, gazteen arazoak, hartzekodu-nen konkurtsoak eta enplegua erregulatze

ko espedienteak, ikerketa eta garapenaren ego-
era, janari bankuak, kontsumoa, lanuzteak, *mobbinga*, nekazaritzaren etorkizuna, zahar-tzaroa eta pentsioak. Gai horiek guztiak lan-tzeko, hoguei lagun elkarriketatutatu ditu, eta adi-tuen iritzia ere jaso du.

Epe laburrean, emaitza onak

Ez da denbora asko pasatu Gorrotxategik li-burua argitaratu zuenetik, eta hark esan due-nez, “harrituta” dago izaten ari den kritika one-kin. “Liburutegi askotan esan didate liburutegi irakurrienetakoa dela, eta jendeak azkar eta erraz irakurtzen duela”. Irakurleen txoko asko-tara ere gonbidatu dute: “Askotan, zoritxarrez, ezetz esan behar izan dut”.

Gorrotxategi 111 Akademiaren Sariko lehen sei hautagaien artean egon da. Irakurle-en saria da aipatutakoa, eta, idazleak dioenez, ez zuen horrelakorik espero: “Kirmen Uribek irabazi du saria, eta hautagaien artean egote hutsa plazera izan da niretzat”.

Idaztea aspalditik gustatzen zaio Gorrotxa-tegiri, eta hark dioenez, betidanik amestu izan du liburu bat idaztearekin. Txikitan Urruzuno Li-teratur Lehiaketa irabazi zuen. Duela urte ba-tzuk, Madagaskarrera joan zen boluntario la-netara, eta lan orduz kanpo zegoenean, irakur-tzen aritzen zela dio. Eraman zituen liburu guz-tiak irakurtzean, idazten hasi zen. Handik itzul-tzean, istripu txiki bat izan zuen, eta idaztea “ihes egiteko modu bat” izan zela azaldu du.



Gorrotxategi eta Garate beren liburuak eskuetan, liburutegiaren aurrean. ||| **Olaia Iraola**

||| “Liburutegi askotan esan didate libururik irakurrienetakoa dela”

MIREN GORROTXATEGI

33 ezkil liburuaren egilea

||| “Kazetaritza asko gustatzen zaidala jakiteko balio izan dit bekak”

MIREN GARATE

Ekaitzaren zipriztinak liburuaren egilea

“Zure buruarekin sinetsi behar duzu, pentsatu behar duzu balio duzula eta ondo ari zarela”, dio azpeitiarrak.

Garatek *Ekaitzaren zipriztinak* liburuaren kritika asko jasotzeko astirik eduki ez duen arren, gustura dago izaten ari den emaitzekin. Ofizioz, *Berria* egunkariko kazetaria da, baina ama izan zenean eszedentzia hartu zuen, eta denbora tarte hori aprobetxatu du liburu idazteko. “Kazetaritzan jarraitzeko beste bide bat izan da, baina ordutegia nahi dudan moduan egokitzea ahalbidetu dit. Kazetaritza asko gustatzen zaidala jakiteko balio izan dit bekak, jendearekin egotea eta hitz egitea asko gustatu baitzait. Liburuko parte-hartzaileekin hartu eman polita izan dut”, adierazi du.

“Momentuan, momentukoa”

Beste liburu bat idazteko ilusioa baduten arren, aurrena argitaratu berri dituzten liburuen erantzunak jaso nahi dituzte. Denbora aurrera joan ahala erabakiko dute beste lanen batekin hasi edo ez. Garatek aitortu duenez, liburu bat idazterakoan “presioa” sortzen du amaitzeko data edukitzeak: “Urtebete baino gehiago edukiko banu, gauzak beste modura egingo nituzkeen... Edo ez; ezin jakin”. Hala ere, hark dio “zerbait hobea” egiteko ilusioarekin dagoela. Gorrotxategik ez du ezer pentsatu etorkizunera begira: “Momentuan momentukoa idazten dut”. Gustura dago liburu ira-
kurri duen jendeak beste bat idaztera animatu duelako: “Hori baino ezer hoberik ez da”. Halere, zalantzak ditu, “hainbeste gustatuko ote da hurrengo liburu?”. Galdetzen baitio bere buruari. “Lan hau argitaratu aurretik ere banuen beldurra, baina gustura gelditu naiz egindakoarekin”.✱

San Joanik gabeko hura

Gehienek junioa esaten zioten. Ekaina esaten ikasi genuen. Sanjoan hila esanda, orduan eta orain, ulertu egiten da. Urrestillako herri jaien hilabetea, sanjoanak ospatzekoa; nahiz eta dirudien, solstizioaren unibertsaltasunagatik, euskaltasun lunatiko bategatik edo auskalo zergatik, San Joan bezpera, suak eta gainerakoak, Azpeitiko Plaza Nagusian ospatzeko joera, ala araua, indartu dela. Nork esan du zentralismoa?

Hil honetantxe izan zen, 1975ean, Otaegi afusilatu zuten urtean. Fiskal militarrek apirilean egin zuen heriotz zigorraren eskaera. Ez dakit guztiz jabetzen ginen. Nuarbeko festa batzordeak Artaberan, Anjelen jaiotetxean, zabaldu zuen festetarako taberna. Urrestillan gorputz jaiak normaltasunez, orduko normaltasunez, ospatu ziren. Diotenez Anjel ez zen batere Urrestilla zalea, han asko ibilia bazen ere, handiak esaten omen zituen Urrestillagatik. Urte hartako sanjoan jaiak bertan behera uztea erabaki genuen festa batzordearen gehiengoaren erabakiz. Heriotz zigor eskaria zela eta, ez zen festarik izango gure herrian. Festak suspenditu zituen herri bakarra izan zen. Egun gorri izan zen egun haietako giroa.

Kontratatutako musika taldeak, beste inon kontraturik lortzen ez bazuten, ordaindu egin beharko geniola hitz emandakoa. Azpeitiko udalak bere gisara kontratatu zuen beste musika talde bat. Antolatzaileoi ematen zigun diru laguntza baino hamar-hamabi aldiz diru gehiago gastatu zuen. Benetan, ez dut gogoa arbolarik jaso zuen ala ez. Sanjoandegiko jaietarako kontratatu zuten taldea, Urrestillan baino egun bat gutxiagorako. Jo ez zuten egunarena ordaindu egin behar izan genien. Sanjoandegiko taberna batean, dantzaldiaren atsedean tarte bat baliatuz, barruetako min galantaz, ordaindu genien libre, lanik gabe, gelditu zitzaien egun hura. Ez geunden festetarako eta itzal ilun asko sentitzen ge-



|||||||ramon etxezarreta|||

|||Sanjoandegiko dantza debekatzera joan nintzela esan zidan, ez taldeari zorra ordaintzera



nuen geure bizkarretan. Urrestillara itzuli ginen, etxe ingurura.

Zintzo jokatu genuen

Urrestillan zain neukan José Haro Goardia Zibiletako sarjentua, handik hiru hilabetera amari semea biharamunean hilko ziotela jakinaraztera joan zen bera. Sanjoandegira dantza debekatzera joan nintzela esan zidan, ez taldeari zorra ordaintzera. Mila esplikazio narrats eta nahasi eman nizkion, ederki nabaritutuko zitzaizkidan koadrila osoaren beldur eta ikarak.

Agian, ordukoek ez zuten ondorio onik ekarriko, baina ez dut zalantzarik zintzo jokatu genuela, oso zintzo. Gaur, aurtengo sanjoanetan, ez dakit zergatik, memoria egitea otu zait, gogoratzea. Neure buruari galdetzen diot egoera hartan nahastatu ginen guztiok, izendatuek, izendatu gabeek eta beste askok, berdin kontatuko ote ditugun orduan gertatu zitzaizkigun guztiak. Sanjoan on!*

“ Herritarren hurbiltasuna sentitu dugu bide berri honetan ”

Hamar urte eman dituzte elkarrekin lanean Onintza Agirregabiria Odriak eta Maite Zabala Arros-pidek, eta ondo moldatzen zirela ikusita, beren optika zabaltea erabaki dute. Maiatzaren 12an inauguratu zuten Inar, beste modu batera esanda, eguzki izpia litzatekeena.

Urte askotako esperientzia dute bi profesionalak. Optika eta Optometria ikasi zuen Agirregabiria, eta Donostiako Begitek klinika oftalmologikoan eta Bilboko optika batean egin zuen lan, Azpeitian lanean hasi baino lehen.

Zabala, berriz, optika teknikaria da. Donostiako Gurutze Gorrian hasi zuen ibilbidea, eta han lan egiten zuen okulista batek, David Encinasek, lana eskaini zion bere kontsultan. Ama izan zenean lana utzi zuen, eta zortzi urteren ostean, Azpeitiko optika batean hasi zen lanean.

Zer eskaintzen duzue Inarren? Batetik, ohiko betaurrekoak ditugu: eguzkitakoak eta gradua-

tutakoak. Prezio guztietakoak ekarri ditugu, modu onekoak zein bereziagoak. Kalitatea lehen lerroan jarrita, gauza politak ekartzen saiatu gara.

Zertan zarete espezialistak?

Lentilla bereziak egokitzen ditugu, miopiaren hazkuntza geldiarazten dutenak. Egunez nahiz gauez janzen direnak ditugu; eta azken horiek eraginkortasun handiagoa dute. Gauez lentilla horiekin lo egiten baduzu, egun guztian zehar ez duzu behar ez betaurrekorik eta ezta lentillarik ere. Emaizta oso onak ikusten ari gara.

“Arazo bakoitzari ahalik eta irtenbide onena bilatzen saiatzen gara”

Horrez gain, terapia bisualak ere egiten dituzue.

Batzuei ez zaie arazoa betaurrekoekin konpontzen: arazo muskularren bat edo estrabismoren bat dutelako, begiak behar bezala mugitzeko arazoak dituztelako... Kasu horietan, begiak nola landu behar diren irakasten diegu, bai haurrei eta bai helduei. Horiez gain, begietan arazorik ez duten baina eskolan pertzepzio arazoak dituzten



haurrentzako beste terapia batzuk ere baditugu.

Zer du berezia zuen optikak?

Esperientzia dugula begi konputetan. Horrez gain, harreman zuzena dugu hainbat okulistarekin, eta bezeroren bati begiratu beharreko zerbait ikusten badiogu, zuzenean azaltzen diegu medikuei.

Zer harreman duzue bezeroe-kin?

Jendea entzuten eta arazo bakoitzaren aurrean ahal den irtenbide onena bilatzen saiatzen gara. Azpimarragarria da jendeak asko animatu gaituela erabaki hau hartzerako. Herritarren hurbiltasuna sentitu dugu etapa berri honetan.



INAR OPTIKA

Inar Optika

Jose Artetxe, 10 (Azpeitia, Gipuzkoa)

Ordutegia:

- Astegunetan, 09:30-13:00/16:30-20:00.

- Larunbatetan, 09:30-13:00.

Telefonoak: 943 03 89 49/688 67 67 26

 facebook.com/optikainar

Lasterka, Peruren alde

Peruko umeen alde kros solidarioa egingo dute Sanjuandegin, ekainaren 11n, 12:00etan hasita. Egitasmoaren helburu nagusia da urtero herrialde bateko errealitatea ezagutaraztea.  **Ainitze Agirrezabala**

Sanjuandegiko krosak urte askotako historia du, baina orain dela hiru urte aldaketa nabarmena izan zuen. Urte askoren ondoren, ordura arte lasterketa antolatzekeo ardura zutenek utzi egin zuten egiteko hori. Egitasmoarekin aurrera jarraitzeko asmoz, lekukoa hartu zuten Azepitiko kooperazio taldeak, XJ Auzolaneanek eta Xeye atletismo taldeak, Azepitiko Udalarekin elkarlanean. Xeyeko kide Egoitz Arrutiren esanetan, lasterketari “kutsu solidarioa” ematea erabaki zuten, eta horretan dihardute. “Urtero herrialde ezberdin bati laguntzeko erabakia hartu genuen”. Aurreneko urtean, Nepalgo umeen aldeko lasterketa izan zen; ia, Saharako hurrei laguntzeko eta Tindufeko errefuxiatu kanpamenduetan izandako uholdeetako ezbeharrei laguntzeko antolatu zuten lasterketa; eta, aurtén, Peru hautatu dute.

Arrutik dioenez, lasterketaren helburu nagusia da urtero herrialde bateko errealtatea ezagutaraztea. “Lasterketa aitzakia besterik ez da. Azpeitian urte guztian zehar lanean ari diren kooperazio taldeen berri emateko”, esan du.

Mailaz maila, lasterka

Lasterketa ekainaren 11n izango da Sanjuandegin. Izena 11:00etatik aurrera eman ahalko da Jose Antonio Agirre plazan. Gainera,

||| DATUAK |||

III Zer. Peruren aldeko kros
 solidarioa. **III Eguna.**
 Ekainak 11 (igandea).
III Odua. 12:00 **III Tokia.**
 Sanjuandegi
III Antolatzailea. Xeye, XJ
 Auzolanean, kooperazio
 taldeak eta udala.

nahi dutenek diru ekarpena egiteko aukera izango dute. Aurreneko lasterketa 12:00etan izango da, eta 2013an jaio artekoek izango dute proba horretan parte hartzeko aukera. Horiek heldu baten laguntzarekin irten behar dute lasterketan. Ondoren, mailaz maila, 2003an jaio artekoek izango dute aukera lasterka ateratzeko.

Peruko umeen aldeko kros solidarioan parte hartzera gonbidatu ditu Arrutik haurrak zein helduak.✘

|||KROS SOLIDARIOA||||||||||||

3. **lasterketa solidarioa.** Aurtengoa Peruko haurrak laguntzeko izango da. Iaz, Saharako haurrentzako bildu zuten dirua, eta lehen edizioan Nepaleko haurrentzako.✴

Iazko kros solidarioko irudia. **Mailo Oiarzabal**

|||BESTERIK|||

1 Zuzenean, Mikel
Urdangarin

'Margolaria' disko berria
aurkeztuko du zornotzarrek.

||| **Eguna.** Ekainak 11. ||| **Ordua.**
19:00. ||| **Tokia.** Sanagustin.

||| **Antolatzailea.** Kulturaz.

2 Solasaldia eta kontzertua

Maite Arroitauregi eta Maite Larburu musikarien arteko solasaldia izango da. Gero, kontzertua eskainiko dute **Mursego eta Neighbor** taldeek.

|||**Eguna.** Ekainak 16. |||**Ordua.** 17:00 eta 22:00. |||**Tokia.** Dinamoa eta Sanagustin.

|||**Antolatzailea.** Dinamoa.

3 'Alu ulu' antzerkia

Emakumeen sexualitatea landu
eta foroan gaiaz ariko dira
Arremanitzeko kideak.
||| **Eguna.** Ekainak 28. ||| **Ordua.**
19:00. ||| **Tokia.** Dinamoa.
||| **Antolatzailea.** Dinamoa.*

|||Azpeitiko ekimenez informazio
gehiago: uztarria.eus/agenda

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak
Urteko: 618 90 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ikaargilanak@igmail.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

 **Aiertza Autoak** 
CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiertzautoak@telefonica.net
MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

“Ikasle bakoitzarekin harreman pertsonalizatua eta zuzena dugu”

Behin eskola-ko azterketak bukatuta, udako oporraldia aproposa da gidabaimena ateratzeko. Azpeiti Autoeskola leku egokia duzu era erraz eta atseginean ikasgaia aurrera eramateko. Maite Agirrezabala eta Maddi Elorza izango dituzu erronka berrian bidelagun.

Zer ezaugarri egiten du berezi Azpeiti Autoeskola?

Herrikoak gara, etxeokak eta ikasle bakoitzarekin harreman estua dugu. Autoeskola txiki bat izanik, ikasleekin harreman zuzena eta pertsonalizatua dugu. Horrela, ikaslearen ikasketa prozesua gertutik jarraitzen dugu, bakoitzaren erritmoa errespetatuz.

Arreta pertsonalizatua eskaintzen duzue, beraz?

Bai, noski. Teorikoan, esaterako, garrantzitsua da oso ikaslearen erritmoa errespetatzea, kontzeptuak ongi barneratzeko. Praktikoan ere bakoitzaren beharren eta ordutegiaren arabera da, eta ez dago gutxieneko ordu kopuru bat sartu beharrik.

Zer zerbitzu eskaintzen dituzue?

16 urtetik aurrera bi aukera daude: motorreko A1 gidabaimena eskuratzeko edo kotxeiko B gidabaimenerako teorikoa ateratzeko. 18 urterekin, berriz, kotxeiko B gidabaimena ateratzeko aukera dago. Gainera, aurten uztailaren 28ra arte eskaintza berezia dugu: %24ko deskontua egingo dugu izen-ematean, ikasmaterialean, teorikoan eta tramitazioan.

Zer sistema erabiltzen duzue?

Teorikoa prestatzeko bi modu ditugu. Aukeretako bat da ikastaro presentziala egitea teknologia berriez baliatuta. Autoeskolan bertan ordenagailua eta ikus-en-

“Gure helburua da etorkizuneko gidariak errepidean arduratsuak izatea lortzea”

tzunezko materiala dituzte eskura ikasleek, eta irakaslearen etengabeko laguntzarekin modu azkarrean eta errazean barneratzen dituzte gaiak. Bide batez, etxetik ere egin ditzakete testak Interneten. Beste aukera da ikastaroa online egitea: norbaitek autoeskolara etorri gabe teorikoa prestatu nahi badu, 75 euroren truke etxetik egiteko aukera ere ematen du gure autoeskolak. Ikasleak hiru hilabeteko epea dauka prestaketa



egiteko. Denbora gehiago behar izanez gero, pasahitza berri behar da. Aipatutako bi modalitateetan prestatu daiteke teorikoa euskaraz ere, eta gure ikasleen ia %100ak euskara hautatzen du.

Zer dute nahiago ikasleek teorikoa ala praktikoa?

Praktikoa asko gustatzen zaie, baina teorikora beraie borondatzez datozenez, atsegina egiten zaie. Ikasleak, oro har, gustura datoz ikastera, eta, gainera, autoeskolan giro jatorra dago. Gure autoeskolan teorikoa eta prakti-

koa konbinatzeko aukera ere badago. Modu horretan, teorikoa errazago barneratzeaz gain, gidabaimena azkarrago eskuratu daiteke.

Erronka handia duzue etorkizuneko gidariak trebatzen...

Hala da. Gure helburua da etorkizuneko gidariak errepidean arduratsuak izatea lortzea. Garrantzitsua da gizartea, oro har, jabetzea kotxea makina bat dela, eta erabilera egokia ematen badiogu arrisku asko saihestu ditzazkegula, norbera eta inguruko segurtasuna ziurtatuz.

Loiolako Inazio Etorbidea, 29

20730 Azpeitia

Telf.: 943 083 143

www.azpeitiautoeskola.com

info@azpeitiautoeskola.com

Ordutegia: 10:00-13:00/15:00-20:00



HITZ GEZIDUNAK

	Izena		Balea mota		Katalunia-ko hiria		Trakets		Algaraka
	Labealdia-ren edukiak		Txingorrak		Berrietsua		501		
	Kisketa								
	Abaraska-ko gelatxo								
Garagardoa		Bizkaiko ibaia					Bokalik gabeko dirua		
Gaixotasun mota		Goiko					Kaikua		
					Pl. azalera unitatea				
					Modua				
Eginkizun, zeregin			Txahal arra						
Laster-tasuna			Deialdi						
							Kontso-nantea		Kontso-nantea
							Kontso-bikoitza	... gabe, gelditu gabe	
Deitura									
Izatasuna du									
					Uharteak				
					Bokala				
Ipar EH-n, era, modua			Suari dariona				Gipuzkoa-ko herria		

Egilea: Luma

* Idazle eta politikari urrestillarra

SUDOKUA

	9	8			2			
			6	3				
5							9	3
	2	9			3	8		
		4		6		7		
		1	7			4	3	
2	4							1
				1	7			
			2			6	5	

"Il Partigiano" azpeitiko lehen pizza artisan egilea da. Gure italiar pizza tradizionalak produktu fresko eta naturalekin eginak daude. Egunean etxean egingako masarekin, momentuan eskuz zabaldua.

ETXERA ERAMANGO DIZUGU

Telefonoa
943 08 09 13


ildefonso gurrutxaga, 12 behe



||| UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK |||||

||| JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Ekainak 23 (ostirala) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoaren irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.

1



2



||| LEHIAKETAREN ERANTZUNAK |||||

1 JENDEZ BETETA ZEGOEN

2 HEGAZTI EDERRA

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

A	I	A	•	A	E	K	•	A	R	A	•
K	A	L	R	I	•	A	I	K	A	Z	I
A	T	E	R	R	A	Z	E	X	T	E	•
R	•	G	•	A	R	U	D	A	B	A	A
A	R	R	O	K	E	Z	•	L	O	R	•
K	A	E	R	A	•	A	N	E	G	E	L
R	D	•	A	L	E	B	O	G	•	Z	•
A	L	I	T	A	R	A	M	•			
K	A	D	A	K	E	B	A	L			
•	B	•	M	•	Z	•	R	•			

SUDOKUA

2	5	9	4	6	2	3	8	1
4	7	3	7	1	8	5	9	6
1	8	6	9	5	2	7	4	2
6	3	4	8	2	7	1	5	9
2	1	7	5	9	6	4	3	8
5	9	8	3	4	1	6	7	2
3	6	2	1	8	4	9	7	5
8	7	5	6	3	9	2	1	4
9	4	1	2	7	5	8	6	3

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

1 Ume berritsua 2 Eleberria

||| UZTARRIAREN MAIATZEKO LEHIAKETA |||||

IRABAZLEA



Rosa Leunda
Uztarria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 194. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.



Urdalazplikoak, hestebeteak eta gaztak

Etxeko berezitasuna:
Ezkur urdalazpliko Iberikoa

Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damaso Azkue 6

||| BIDEOA |||||

▲ **BOSGARREN GONBIDATUA, IBAN ARREGI.**

Iban Arregi Berria Taldeko kontseilari ordezkaria izan da *Sanagustineko elkarrizketak* saioko bosgarren protagonista. Duela 20 urte Komunikazio Zientzietan lizentziatu zen Iban Arregi (Azpeitia, 1975). Kazetari izatea umetako ametsa ez bazuen ere, urteak daramatza mundu horretan lanean. *Euskaldunon Egunkarian* hasi zuen ibilbidea, eta haren itxiera gertu-gertutik bizi izan zuen. Ondoren, *Berriaren* sorreran parte hartu zuen, eta 2013az geroztik, Berria Taldeko kontseilari ordezkaria da. Julene Frantzesena kazetariak elkarrizketatu du Arregi, eta eduki osoa Uztarriaren webgunean ikus daiteke. Sanagustineko elkarrizketak egitasmoa elkarlanean antolatzen dute Azpeitiko Kultur Mahaiak, Uztarria Komunikazio Taldeak, Sanagustin kulturguneak, Urola Kostako Hitzak eta Erlo Telebistak. ||||| **Uztarria** |||||

||| EFEMERIDEAK |||||

1869

Telegrafo etxea martxan.

Udal telegrafo estazioa martxan jarri zuten. Arduradun Joxe Blasco telegrafista izendatu zuten.

1986

Jubilatuena etxea.

Enparan kaleko Aitonena jubilatuen egoitza inauguratu zuten. Egun Baigera I izena du.

2001

Erremontea herrian.

Azpeitiko I. Erremonte Txapelketa jokatu zuten.

🍷 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

||| BIDEOAK |||||



‘Naizena, naizela, maitatua’.*

Palma olio

O sasunean eragin ditzakeen kalteak direla eta, alarma handia sortu du palma olioak azken hilabeteetan. Afrikan du jatorria *Elaeis guineensis* izeneko zuhaitzaren fruitutik datorren olioak.

Gaur egun, farmazeutikek, kosmetikoak egiten dituztenek eta elikadura industrietan erabiltzen dute palma olio, oso ondo kontserbatzen delako eta oso merkea delako. Orain arte ez gara ohartu olio hori bazenik ere, baina lehen ere bazegoen *aceite vegetal* izenarekin. 2011n onartu zuten araudi bati esker, osagaien zerrenda irakurrita posible da kontsumitzen ditugun produktuek zer olio duten jakitea.

Eztabaida sortzen duen osagaia da palma olio: dituen gantz saturatuak tarteko, ez da batere osasuntsua. Gaixotasun kardiobaskularrak eta zenbait minbizirekin erlazioa duela ikusi da. Prozesatutako jaki askotan topa dezakegu, hala nola opil industrialetan, gailletetan, aurrez prestatutakoetan... Industria laister hasiko da "palmarik gabeko" etiketak jartzen, baina kontuz! Osasuntsua ez den osagai bat ez izateak ez du osasuntsu bihurtzen jakia.

Zenbat eta etiketa gutxiago irakurri beharra izan, hobe. Janari prozesatuak alde batera utzi eta jan dezagun benetakoa dena.

Geurea, bertakoa eta zerrendarik irakurri beharrik ez duena.*



aitziber aizpuru

AINTZANE ARRUTI udal eraikinetako garbitzailea



1. Garbitzailearen ametsa?

Dena garbi aurkitzea lanera joandakoan.

2. Garbitutakoan luzitzen duen toki bat?

Gabiltzan tokietan zaila da luzitzea. Garbitzen duzunean, inor ez da

konturatzen; garbitzen ez baduzu, denak.

3. Lan handiena ematen duen eraikina? Ikastetxeak eta igerilekua.

5. Laneguna bukatu, etxera iritsi, eta dena hankaz gora...

Orain ez, baina lehen bai.

Hasierako urteak gogorrak izan ziren.

6. Zorua garbitu berri eta orduantxe jendea, zapaltzera...

Eta zer egin? Zer esan? "Lasai, pasatuko dut eta berriz..." Ez dago besterik.*

Mailo Oiarzabal

Ekain
ALBARTARI KLINIKA

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel: 943 15 16 40

Lamiaketa:
943 15 16 40

ostadar optika
OPTIKAS - OPTOMETRIAS

Jose de Arrese, 17
Tel: 943-810664
AZPEITIA

Idai Ondo, 28
Tel: 943-850445
AZKOITIA

AINTZANE ETXEBERRIA AGIRREZABALA
Fisioterapeuta - Osteopata

Tel: 943 81 81 78 - 94 328 445 - landuena - 3672429014

Alar
merceria

Loiolako Iazulo Hiribidea, 9
Tel: 943 81 81 78

Ingelesko ikastaroak

* Londres, Dublin edota Belfasten.
* Ingelesko ikastaroak 8 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzat.
* Helduentzat negozio edo asalduneko ikastaroak.
* Aintzapraktika eskolak Urresotik, helduentzat.

Tony Byrne 943 20 23 75

uba
ARRUGAITZEN

Analkularitza
Fisika
Laborala
Lentaketa

Costuri-lanak
Fotoko administrazioa
Gestio Inmobiliaria

Tel: 943 157 374 Fax: 943 152 375
Euzkoan kalea, 45 - 4. lehi. g. 48001 Leizor

KIRURI
K

JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfnua.: 943 81 50 00
Faxa.: 943 15 03 62

adi
ARTE ETA
DISEÑU
ESKOLA
ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 18:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Talla 18:30 - 20:00

Jose Arrese kalea, 3
943 81 28 08
arredabaina@gmail.com
Matrikula arte osoan zabalik



Kamera itzalita

Laneko erreminta off-ean duenean ez du aspertzeko betarik Oteizak. Autoak eta mendia ditu gustuko, besteak beste. 📷👁️ Ainitze Agirrezabala

U

ztariaren ekaineko zenbakia kaleratzerako, Joanes txikiak amaren sabela utzi eta argia ikusita behar luke egon. Aitatasun tituluaren jabe, bizimodu berrian esperimentatzea dagokio Urtzi Oteiza *Kaitori* (Azpeitia, 1981). Pixoihalak aldatzea eta seme jaioberriari kontu txikiak esatea izango ditu eginkizun berriak egunerokoan. Garagardorik gabe umearekin egindako *parrandak* nahi baino gehiago izango dituzte agian, baina guraso izateko duen “ilusioak” gainditu egiten ditu momentuz, behintzat, horrelako kezak.

Kamera sorbaldan hartuta, festak nahiz ekitaldiak iruditan jasotzeaz arduratzen delako da ezaguna Kaito herrian. Artxibo lana eta herriko ekitaldien jarraipena egitearena oinordetzan jaso du; izan ere, haren aitona eta aita zenak –Nicolas Oteiza– ere argazki nahiz bideo kamerak izan dituzte lanabes. Alabaina, laneko erraminta itzali du Kaitok, eta Urtzi Oteizaren beste aldea ezagutzeko barneko atea zabaltu ditu.

Automobilaren mekanika eta karrozeria ikasi zituen Elgoibarko Lanbide Eskolan, eta

ogibide bezala egunerokoan horretan aritu ez arren, eskuak belzteko aukerarik ez zaio oraindano falta izan. “Iraitz Orbegoza *Korta-berri* eta Xabier Beloki *Minda* lagunak autolasterketetan ateratzen ziren, eta mekanikari bezala haiei laguntzen hasi nintzen. Sei bat urtera, 2008an, aitari bihotzeko ebakuntza egin zioten, eta autoa gidatzeari beldurra hartu zionez, saltzen jarri zuen. Eroslerik, ordea, ez zen azaldu, eta dena desmuntatu eta lasterketetarako prestatu nuen, kapritxo bezala”. Aitaren Ford Scor XRLarekin egin

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	0251 91
Ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	0254 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	8532 97
DYA-Donostia	4646 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EH Bildu	15 72 00
----------	----------

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Ekainaren 28an izango dute hitzordua, 17:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuleuskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

FARMAZIAK (EKAINA)

1-8-13-17-18-23

Eizagirre (Azpeitia).
943811274

5-12-20-27-30

Aranburu (Azpeitia).
943811949

2-7-14-19-24-25-28

Jacome (Azpeitia).
943 080258

6-10-11-16-22-29

Alberdi (Azpeitia).
943815974

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **ANBULATORIOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste egunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jaiegunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko: 11:00-20:00 **KIROLDEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **LIBURUTEGIA** ||| Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 ||| Larunbata: 09:00-13:00 ||| Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian, itxita **GAZTELEKUA** ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



AZPEITIA TXARTELA.

Ordaintzeko eta dirua ateratzeko; herriko saltokietako promozioez baliatzeko, eta udal liburutegian zein igerilekuan eta kiroldegian sartzeko balio du. Udaletxean eskatu daiteke, besteak beste.

3-4-9-15-21-26

Beristain (Azpeitia).
943811949

GAUEZ, URTE OSOAN

Beristain (Azpeitia).
943 811949

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

LEANDRO INSUA

Tortuguitas, Buenos Aires (Argentina)

“konfiantza Lortu ahal, jatorrak eta hitzekoak zarete”

Argentinako lehengusua bisitatzera etorri eta bertan geratu da bizitzen. Integratzeko euskara ikasten ari da.  Ainitze Agirrezabala

Zerk ekarri hau Azpeitira?

Argentinako nire lehengusu bat, Andres, hemen bizi dun duela hamar bat urtetik. 2015eko otsailean etorri nindunan aurrenekoz bisitan. Egun Azpeitian bizi dun bikotekidearekin eta semearekin, baina garai hartan, mendian bizi hitunan eta beraiekin igaro ninan hila-bete. Egonaldi hura inflexio-puntua izan zunan niretzat, eta iazko otsailean, bi aldiz pentsatu gabe, bertan geratzeko etorri nindunan.

Zer moduz egokitu haiz herrira?

Oso ondo. Hasieran beti izaten ditinagu bel-durrak, baina lehengusuaren-eta bidez jende jator asko ezagutu dinat. Ikasberri futbol taldean ere jokatu dinat denboraldi batez, eta Gaztetxean jende umilarekin egin dinat topo. Euskaldunak itxiak eta hotzak zaretela esan ohi da, baina ezagutu eta konfiantza lortu ahal, jatorrak eta hitzeko pertsonak zarete.

Zer egiten duk egunerokoan?

Funkdamental eta Enekor musikari taldeetako managerra naun, eta administrazio kontuez eta kontzertuak lotzeaz arduratzen naun. Bestalde, Loiolan baseritar batek lur zati bat utzi zigun, eta gaztetxeko lagunekin

auzolanean baratza lantzen ari gaitun, eta oi-loak jartzeko asmoa ere badinagu.

Euskara ikasten ari haiz. Zer moduz?


Uste baino errazagoa ari zaidan egiten eta oso gustura ari naun euskara ikasten. Ez dinat euskaltegian bakarrik lantzen; handik kanpora ere euskaraz bizi zarete-eta. Gainera, lehengusuaren bikotekideak, Idoiak, arau bat jarri din etxean, euskaraz hitz egitea, eta pixkanaka ari naun hobetzen. Kulturari diodan errespetuak eta herrian integratu ahal izateak bultzatzen naiten euskara ikastera.

Hemengo zer gustatu zaik gehien? Eta zer gutxien?

Oro har, hemengo bizitza bera gustatu zaidan. Argentinan 1.500 kilometrora dinagu mendia eta hemen ahal dudan guztietan joaten naun Montxo txakurra hartu eta mendira. Eta gustatu ez zaidan zerbait esateko... ez zaidan une honetan ezer bururatzen.

Zer botatzen duk faltan?

Familia, lagunak... Amak tristuraz hartu zinan nire erabakia, baina bazekin semeari hegan egiten utzi behar diola, zoriontsu egiten nauen hori aurkitzeko.



1. Lehengusuaren seme Xubanekin Xoxoten.
2. Xubanekin siestan, lagun baten Elosuko baserrian.
3. Korrikako lekukoa eramaten.

10.372 kilometrora dago Tortuguitas.



Oinezkoen bidea

Ez dut parte onekoa senarraren ibilera. Ez bat eta ez bi esan du etxera sartzearekin batera, bere senetik irteteko zorrian, edo madretik guztiz irtenda. Salgai jarri dut autoa! Ez du galdetu zer iruditzen zaidan, ez zer iritzi dudan, salgai jarri duela besterik. Ondoren etorri dira azalpenak, inork eskatu gabekoak izan badira ere. Autoa salgai jarri duela, atarramendu onik ez dagoela gure kalean, poeta donostiar bipilaren karrikan. Hernanin jaio donostiarra Gabriel Zelaia. Poesia aztarrenik ez, baina idazle izenek inguratutik bizi gaituzu Gabriel Zelaian. Blas Otero, Inazio Aldekoa, Angela Figuera Aymerich, Gabriel Aresti dituzu hara eta hona. Gabriel Arestik asmatu. *Jainkoak eztezala nahi Bilboko karrika bati / Nire izenik eman dezaioetela / (Eztut nahi bizargile hordi batek esan dezala: / Ni Arestin bizi naiz, anaiaren / koinata nagusiarekin. Badakizu. Maingua).* Eta karrikak ditu diren eta ez diren euskal herri eta hiri guztietan. Eta salgai jarri dut autoa, senarraren hotsa burrunban belarrietatik barreraino. Oraindik orain mutiko bat harra-patu dute bizikletan zihoala Gabriel Zelaia oinezkoen bidean, hasi du diskurtsoa, pare horretan ikusi dituen kalamidadeak kontatzen hasita. Senarrak ez du esan auzoan autobus geltokia jarri dutenetik autoek inguruko kale eta estratetan zehar eskapatzen direla autobusen erresuma erretik, eta, ordainetan, inguruko kale eta estrata garai batean bake-tsu lasai eta bakartietan dabiltzala abantadana, karrerak eginez bezainbateko belozidadean. Nik badakit oinezkoen bidean harrapatu zuten mutikoaren irudiak, artean lurrean e-tzanda, bertan anbulantzia, mediku eta laguntzaile, alboan bizikleta aurreko errobera bihurritua, erabat mindu zuela senarraren sentsibiltatea. Filmetan ageri den moduan mindu sentsibiltatea, are, bera bizi guztian bizikletan dabilena izaki. Beste pasadizo bat ere badu, ordea, nire gizonezkoak, eta lehen-goia baino arraro eta estrainioagoa zait asko-



|||||||miel a. elustondo|||||

|||Autoa salgai jarri duela,
atarramendu onik ez
dagoela gure kalean, poeta
donostiar bipilaren kalean

zaz. Dio, aurreko batean bizikletan etxera zertorrela, oinezko bide ongi aipatu malapartatu gurutzaturik, eta poliki zihoala, arintasunak asentaturik da aspaldi, telefonoa eskatu ziola neska gazte batek. Telefonoa, bistan da, lagun bati hots egiteko. Eta sakelakoa oilandaren eskuetan utzi gabe, markatu zuela neska gazteak agindu zizkion zenbakiak. Baina ez zuela erantzunik jaso, errobotaren ahots dorpe hori besterik. Telefonoa itzalita dago edo estalduratik kanpo. Saia zaitez berri nahi duzunean, ahal duzunean, gogoia ematen dizunean. Bitan jo zuela, eta erantzun amorragarri hotz axolagabe inpersonal zuri faltsu arimagabe bera jaso zuela bietan ere. Oilandari hurren arte esan eta bizikleta gainera igo eta eragiten hasi zela berri, Gabriel Zelaia karrikako oinezkoen bidean.

(Segituko du. Edo ez. Batek daki).✱



**Aurrematrikula
ekainak 5etik 16ra**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



ERDI MAILA

- Administrazio kudeaketa
- Makineriaren elektromekanika
- Ibilgailuen elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta
- Soldadura eta galdaragintza
- Erizaintzaren laguntza
- Karrutzeria

Eta eskaintza partzialean, arratsaldez...

- Erizaintzaren laguntza
- Soldadura eta galdaragintza

GOI MAILA

- Administrazio eta finantzak
- Automozioa
- Haut-heskuntza
- Metal eraikuntzak

Eta eskaintza partzialean, arratsaldez...

- Automozioa
- Gizarfaktorea



BERTAKO TOMATEA

FRUTARIK FRESKOENAK EGOKI JANARIDENDAN



BASERRIKO LETXUGA

MELOKOTOIA



BRINOIA



PARAGUAIOA

MIXURKA- ARBELETXEKOA



DESPELO TATU CLUB NO+VELLO-REKIN

SAIO MUGAGABERAK

GORPUTZ GUZTIA 60€ GATIK
EDO 3 ZONA 35€ GATIK



**no+
vello**
AZPEITIA

ILDEFONSO GURRUTXAGA 8, BEHEA - 20730 AZPEITIA

TEL: 943 04 44 22

E-POSTA: azpeitia@nomasvello.com